

# elkar

UDA 2024
76. ZENBAKIA
www.elkar.eus

# GAZTEEN ERRONKA

14-16 urteko gazteen eta liburuen arteko lotura

+

## NOEMÍ TRUJILLO y LORENZO SILVA

*La innombrable*, un nuevo caso para la inspectora Mauri

## IÑIGO ASTIZ

*Monogamoak*, bere lehenengo ipuin liburua

## IZEN PROPIOAK:

Miqui Otero · Pello Lizarralde · Goiatz Labandibar · Alaitz Melgar · Asel Luzarraga · Yolanda Arrieta · Pruden Gartzia · Irati Fernandez Gabarain · Antton Olariaga · Irati Jimenez · Jeanee Ashbé · Oihane Jaka · Mikel Etxaburu · Andoni Tolosa · Fernando Palazuelos

8435226193731

# IRRIA

**Urtean 10 zenbaki**
etxeko txikienen artean irakurzaletasuna, sormena eta ahozkotasuna sustatzeko

## ipuinak, komikiak, zientziako infografiak, denbora-pasak, jolasak, eskulanak




Egin IRRIAren harpidetza, eta baliatu gure eskaintza berezia: **10 €-ko bonoa** Elkar dendetan erabiltzeko




## URTEAN 53 euro!

HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

- Telefonoz: (0034) 943 30 43 32 zenbakira deituz
- harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera idatziz
- www.irria.eus/harpidetza-n izena emanez

Orain, www.irria.eus-en topatuko dituzu IRRIAren edukiak eta euskarriak!

IRRIEN LAGUNAK

berria ekar Katxiporreta




IRATI FERNANDEZ GABARAIN




elkar liburu-dendak

**ALGORTA (GETXO)** Telletxe 11 94 491 66 16
**ARRASATE** Erdikokale 14 943 79 78 29
**BAIONA** Gouverneurs 9 559 59 35 14
**BARAKALDO** Merindad Uribe 14 944 37 22 76
**BASAURI** Dr. Jose Garai 11 94 426 13 84
**BERGARA** Ibargarai 7 943 76 40 50
**BILBO** Licenciado Poza 14 94 443 47 08
Zamudioko ataria Zazpikale 94 416 14 50
Iparragirre 26 94 424 02 28
**DONOSTIA** Fermin Calbeton 21 943 42 00 80
Bergara 6 943 42 63 50
**GASTEIZ** San Prudencio 7 945 14 45 01
Apraiztarrak 1 Campus 945 14 16 70
**HERNANI** Kale Nagusia 30 943 55 15 37
**IRUN** Colon pasealekua 8 943 63 17 26
**IRUÑEA** Comedias 14 948 22 41 67
Leire 9 948 17 55 38
**TOLOSA** Arostegieta z/g 943 67 35 33



# GAZTEEN ERRONKA



© ANATOLY TIPLYASHIN AZALEKO ARGAZKIA © OLHA TSIPLYAR

**Adin kritikoa dira hamalau-hamasei urteak, helduarorako igarobide sarritan sigi-sagatsua. Adin kritikoa da, halaber, irakurleen ibilbidean, eten gehien gertatzen den aroa delako. Irakurle sutsuak izan diren ume askok nerabezaroan bazterrean uzten dituzte liburuak. Jakinik adin tarte bakoitzak bere gustuak, grinak, premiak eta beharrizanak dituela, gazteen interesa pizten dituzten liburuen bila goaz.**

Artikulu honetan gazte hitzaz hamalau-hamasei urteko neska-mutilak ekarri nahi ditugu hizpidera. Pertsonaren garapen fisiko eta mentalean urte erabakigarriak dira, aldaketa askoren lekuko, umeak heldu bihurtzeko prozesuaren aro gakoa. Eta liburugintzatik begiratuta, urterik gaitzenak ere izan daitezke, nekez asmatzen baitu gazte horien gustuko liburuak ontzeko tenorean.

Horren erakusgarri dugu, esate baterako, adituek detektatzen duten etena. Adin horrekin, irakurle amorratuak izan diren ume asko nerabezaroan aurrera egin ahala erabat urruntzen dira liburu artetik. Mutiletan bereziki ikusgarria da fenomeno hori, gutxi batzuek baino ez diotelako irakurzaletasunari eusten. Zarrapastaka ihes egiten dutela esan genezake, gehiegikeriarik gabe. Urte batzuk beharko dira irakurtzeari utzi dioten horietako batzuk berriz ere liburuetara gogo onez itzul daitezen.

Iruñeko Comedias kaleko elkar dendara hurreratzen diren hamalau-hamasei urteko gazte gehien-gehienak neskatilak dira. Amodiozko nobelen bila joaten dira edo, bestela, fantasia, epika eta maitasuna uztartzen dituzten liburu eta sagen bila. Bigarren multzo baten interesa, berriz, gazteentzat beren-beregi idatzitako nobela beltzera bideratzen da. Donostiako Fermin Calbeton kaleko elkar liburu-dendan ere antzekoak dira bezero gazteak eta haien gustuak, batez ere, fantasiazko munduak, maitasuna/erotismoa edo bortizkeria osagai dituzten liburuen aldera makurtzen dira. Baionako elkar dendako bisitari gazteen artean, ostera, nobela beltza, umorezko liburuak, abenturazkoak edo zientzia-fikzioa dira nagusi.

Edonola ere, liburu-saltzaileen artean orokorra da adin tarte horretan irakurle kopurua jaisten ari deneko susmoa. Adin tarte guztietako joera izan daitekeen arren, bereziki gazteen artean sumatu dute. Neurri batzuek, ordea, fenomeno hori galga dezakete. Adibidez, Baionako elkar dendan Frantziako Gobernuaren Pass Culture bonuaren eragina igarri dute hamazortzi urtez azpiko gazte gehiago liburu-dendetara erakartzeko.




**ARTXIPELAGOA**
Martin eta Xabier Etxeberria · Alex Sanvi
ELKAR




Euskal Herriak ere eman ditu bere distopiak. Istorio hau fikzioa da, baina egiatik ere asko du. 2103. urtean Euskal Herria artxipelago bihurtuta dago, itsasoaren maila 500 metro igo ondoren. Munduaren egitura politikoa erabat aldatu da eta Euskal Herria bi inperioen artean dago.

**DUMITRU BILUZIK**
Koldo Izagirre
EREIN




Orain arte liburu bitan jaso ditu Koldo Izagirrek Dumitru etorkin errumaniarraren ibilerak. Bere bizipenen ondorioz munduarekin bekoki ilun hazi den 14-16 urteko gaztearen gorabeherek, maitasunek eta arazoek zer pentsatua emango digute.

**FESTA**
Jasone Osoro
ELKAR




Badago hamasei urterekin haurdun geratzen den neskarik. Gazteei zirrara eragingo dien istorio honi ez zaio egiantzik falta. Sentimendu eta emozio zurrunbilo batean endredatuta dagoen protagonistaren pentsamenduek gogoeta eginaraziko diote irakurleari.

**HARRY POTTER**
J. K. Rowlling
ELKAR




Bi hamarkada igaro dira euskal irakurleek J.K. Rowllingek sorturiko abentura eta fantasiazko istorio arrakastatsuak euskaraz irakurri zituztenetik, publiko heldua nahiz irakurle gazteak bereganatu dituen eleberri sorta. Gazte helduen litaraturaren giltzarritzat jo izan dira idazle britainiarraren liburuak.

**HORMAK**
Oihana Iguaran Barandiaran
ELKAR




Denok ditugu iraintzen gaituzten hormak, esamoldeak eta jarrerak. Institutu bateko ikasle baten aurkako iraina eta jazarpena izango dira eleberri honen abiapuntua. Eskolako hormak batzuentzat ate zabalak dira, beste batzuentzat egunero gainditu beharreko hesiak.

**ITZALEN DAMA ETA PATXI BAKALLU. HARRIZKO ERREMENTARIAK**
Urtzi Leonet · Iñaki G. Holgado
ELKAR




Euskal Herriko mitologia eta ipareko lurralde izoztuetako mitologia uztartzen ditu istorio honek. Aparloreako eskifaia bidean jarri da bere bigarren misioa betetzera. Fantasia, mitologia eta abentura atsegin duten irakurle gazteek ez dute erdaretara zertan jo.

## EUSKARARENTZAT ERE, ERRONKA

Horrek bigarren erronkara garamatza. Makina bat gazteren irakurketa etenaldi hori gertatu ez ezik, irakurtzen jarraitzen dutenen artean erdara goitik behera nagusitzen da. Liburu-dendetara euskarazko liburuen bila hurbiltzen direnean, gehienak institutu, lizeo edo ikastoletan agindutakoak dira. Comedias kaleko elkar dendan guraso batzuen ardura ere baieztatu dute, seme-alabek euskaraz irakur dezaten, hala udako oporretan nola Gabonetako oparien artean. Baina, berez, Donostian, Iruñean edo Baionan gutxi dira euskarazko irakurgai bila liburu-dendetara doazen gazteak.

Horrek ere badu bere arrazoia. Alde batetik, gazteentzako erdarazko produkzioa asko handitu da azken urteotan, batez ere ildo nagusi horien inguruan (fantasia-epika, maitasuna...). Sarritan, gainera, helduen literaturara ere jotzen dute gai horiei lotutako liburu bila. Euskarazko liburuak, berriz, askoz gutxiago dira adin tarte horri begira eta, askotan, haien edukiak ez doaz norabide horretan. Gainera, gazteek institutu edo ikastolarekin lotzen dituzte. Horren ondorioz, derrigorrak diren heinean, ez zaizkie erakargarri begitantzen.

Bestetik, gazteen artean zabaltzen diren moda, gomendio eta ildo asko sare sozialen bidez iristen zaizkie, *influencer*ren bitartez adibidez. Hor ere euskarazko liburuak egoera makurrean daude, eremu horietan erdarak zeharo nagusi direlako gaur egun. Esate baterako, Wattpad fenomenoa –kontakizunak idatzi eta partekatzeko aplikazioa– mundu zabalean arrakastatsua izan den bezala, Euskal Herrian ere zabaldu da eta neskatila andanaren irakurzaletasuna hauspotu du, baina, jakina, bertan azaltzen zaizkien liburuak erostera joaten dira.

Hala ere, badira eskurago beste faktore batzuk. Adibidez, elkar dendetako liburu-saltzaileen aburuz, liburuetako azalak bereziki garrantzitsuak dira adin tarte horretan. Sarritan liburuak begietatik sartzen zaizkie gazteei. Eta ez da erraza asmatzea. Azala ez bazaie erakargarri egiten, itxura serioa edo ume kutsua hartzen badiote, liburu horrek jai dauka, edukiaren kalitatea zein den ere. Beraz, azalaren aukeraketa beti izanik erabakigarria, are erabakigarriagoa bilakatzen da adin tarte honetako liburuetan.

Badago, beraz, zer jorratua, gazte horiek hein handiagoan irakurketarekiko loturari eutsi diezaioten eta hori euskaraz egin dezaten.

**TOMAS ZABALLA**
Kazetaria





*Proposamena*

**FERNANDO PALAZUELOS**
Escritor

# ENTUSIASMO NATURALISTA

¿Me interesan las moscas? No.
Entonces, ¿por qué recomendar el libro de **Fredrik Sjöberg**? Porque busco libros que me cautiven. Y este lo hace. De hecho, nada más acabarlo he vuelto a leerlo para no perderme ningún matiz. Delicioso.
Si solo te interesan thrillers o folletines de amor, este no es tu libro. Si buscas buena literatura, adelante.
*El arte de coleccionar moscas* es un ensayo que se lee como una novela autobiográfica, una pesquisa a medio camino de la búsqueda personal y la indagación sobre la vida de un entomólogo esquivo y singular llamado Malaise. También es una exposición del método científico, una reflexión sobre la perseverancia y la paciencia en este mundo acelerado, y una declaración de amor por la naturaleza y su diversidad.
El autor llega a transmitir incluso sentimientos ajenos a la entomología. Por ejemplo su visión de la felicidad, el goce de tener una pasión en la que volcar lo mejor de ti mismo.
Lenguaje pulcro y preciso, pero a la vez contenido. El exceso de artificio y de estilo solo logra que un autor nos empalague. **Sjöberg** hace lo contrario. Deseamos seguir escuchando su historia, como si lo tuviéramos delante, tomándonos una cerveza con él, embelesados por su fascinación, cautivados por su modo didáctico y divertido de hablarnos de un tema que en principio hubiéramos esquivado. Su estilo es tan cercano y auténtico que sientes que has ganado un amigo.
Yo busco libros que me atraviesen, que me marquen. Y este es una excelente pieza en mi colección. Entre otras muchas cosas, **Sjöberg** habla del coleccionismo. Y él se ha ganado un puesto de honor en mi catálogo de autores honestos y honorables. Siguen sin interesarme los sírfidos. Lo que me fascinan son tipos genuinos como este autor, o como Malaise el explorador.



**EL ARTE DE COLECCIONAR MOSCAS**
Fredrik Sjöberg
LIBROS DEL ASTEROIDE

*Profila* ERROBI



**ANDONI TOLOSA**
Musikaria

# GURE LEKUKOTASUNA

Zenbat aldiz entzun dezakezu *Errobi* diskoa? Berriro ari naiz horretan, eta ezingo nuke zehaztu behar den digito kopurua: 2, 3... 4? Ez dago modu zientifikoagorik musikari batek utzi duen itzala irudikatzeko: neurtzea zenbat iraun duten denboran haien kantuek.
Nola lortzen den horrelako itzala? Ausardia handiz, egoskorkeriaz (kantu zirraragarriak egiteko ezinbesteko ezaugarriak)... baina, batez ere, kontraesankorra dirudien arren, bere burua dagokion garaian ongi kokatuta. Tokatzen zaion munduari, beraz, dagokion testuinguru kultural, politiko, sozial eta ekonomikoari estu lotuta.
Eta hori primeran egin zuen Errobik: garai hartan mundu osoan indarrean zebilen folk ukituko rock progresiboari helduz (herri-musikari erreparatzeari utzi gabe), **Daniel Landart**en hitz engaiatuak kantatuz eta, noski, euskaraz. Horrela, modu naturalean, bor-bor zebilen Euskal-Herriarekin, eta bereziki, euskal gaztediaren gogo eta grinekin bat egin zuten haien kantuek: *Kanpo, Perttoli, Euskadi, Nora Goaz*... plaz-plaza, ereserki bilakatu arte.
Baina, horretarako, hiperpolitizatutako jendartean, rock musikarekiko zeuden erreze-loei aurre egin behar izan zieten. Jende askok mehatxu gisara jaso zuen rock musikaren etorrera EHra: drogak, hedonismoa, pasotismoa... Are gehiago, garai hartako iparralde, zati handi batean, rural eta elizkoian. Hala eta guztiz ere, sua bezala zabaldu zen musika hori, batez ere, hego Euskal Herrian. Baina oztopo askori egin behar izan zioten aurre.
Agian, une aproposa da gogoratzeko Errobi ez zirela bakarrak, eta Koska elgoibartarren izena aipatzeko. Ondorengoa idatzita dago. Edozein modutara euskal-musika, bereziki euskal-rocka (bere aldaera guztietan) ez litzateke gaur egungoa izango, Errobirik gabe.
Oraintxe oroitu naiz, hamalau urterekin ikusi nituen lehen aldiz. Gure aitak Hernanitik Lezora eraman gintuen, herriko plazan, haiek ikustera. Lurrean eseri ginen oholtzaren aurrean, lehenengo aldia zen nire bizitzan gitarra akustiko bat ikusten nuena.



BARREN-BARRENEAN

# IZENBURU, GURE IZENBURU!



**IRATI JIMENEZ** IDAZLEA

Urteak pasa dira baina zenbatetan akordatzen naizen euskal literaturan zergatik zeuden izenburu arraroak zituzten horrenbeste liburu galdetu zidan irakurle talde bateko kidearekin. Ez dakit zer esan nion. Orduan ez nengoen fenomeno bitxi horrekin ohartuta eta ordutik ez dut erantzunik topatu.

Baina egia da joera hori daukagula. Gehiegitan aukeratzen ditugula esateko zailak eta gogoratzeko inposibleak diren tituluak, irrati esatariak tormentatzeko jarriak dirudítenak. Egia da, halaber, ez dela erraza. Izenburua aukeratzea lan zaila da eta nik neuk zortea izan dut horretan idazleak baino trebeagoak izaten diren editoreekin. Nire lehen eta bigarren eleberriek hasieran zuten izena mantendu izan balute, *Praka baltzetan hari zuria* eta *Ezinen ostatua* liburuen egilea nintzateke. **Xabier Mendiguren**i esker naiz *Bat, bi, Manchester* (Elkar, 2006) eta *Nora ez dakizun hori* (Elkar, 2009) nobelen egilea eta imajinatuko duzue zenbat eskertzen diodan.

Liburuen tituluak inportanteak dira. Onak direnean batak eta besteak elkarrentzako eta elkarrekin sortuak dirudite, liburuak bere titulua sortu izan balu bezala eta tituluak bere liburua. Denak ezin dira halakoak izan, jakina. Baina saiatu behar genuke titulu on bat bilatzen, erraz esan eta gogoratzen dena, erakargarria, iradokitzailea, boteretsua. Liburu baten azalean ikusten dugunean, lehen lerroak irakurtzeko seduzituko gaituena.



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

Euskal literaturan baditugu ukan titulu gogoangarri batzuk. Misterioa konbokatzearekin batera *zer* gertatu den jakiteko gogoa pizten dutenak, adibidez. **Katixa Agirre**k *Amek ez dute* (Elkar, 2018) esaten duenean, irakurleok *zer ez dute* pentsatzen dugu, eta dagoeneko ari gara liburuaren gai nagusia den amatasunaz hausnartzen. **Anjel Lertxundi**ren nobela jenialaren azalean *Hamaseigarrenean, aidanez* (Erein, 1997) irakurtzen dugunean ere *hamaseigarrenean zer* jakin nahi dugu. *Aidanez* horrekin jendearen ahotan dabilen eskandalu bat imajinatzen dugulako eta zenbakiaren zehaztasunak intrigatu egiten gaituelako.

Titulu batzuk hitz bakar batean botere ia mitologiko bat transmititzen dutelako dira gogoangarriak. **Eider Rodriguez**en *Haragia* (Susa, 2007), **Joseba Sarrionandia**ren *Narrazioak* (Elkar, 1983), **Mikel Albisu**ren *Atzerri* (Susa, 2012), **Joan Mari Irigoien**en *Babilonia* (Elkar, 1989). **Txomin Agirre**k oihartzun mitologikoa duten hitz bakarreko bi hitzetan ia Euskal Herri osoa kontenitzea lortu zuen, *Kresala* (1901) batetik, *Garoa* (1907) bestetik.

Badira bi hitzetan kontakizun apasionante bat zain dugula sentiarazten dizkiguten tituluak. **Jon Alonso**ren *Hodei berdeak* (Susa, 2003); **Edorta Jimenez**en *Azken fusila* (Susa, 1993), **Bernardo Atxaga**ren *Bi anai* (Erein, 2023). Edo daukaten erritmoarekin sorgintzen gaituztenak. **Joxe Austin Arrieta**ren lehen eleberriaren titulua bost silabatako hiru hitzekin osatutako letania hipnotiko bat da, *Abuztuaren hamabosteko bazkalondoa* (Elkar, 1985). **Txillardegi**ren nobela inauguralaren izenburuak lau silabatako beste hiru hitzekin aitorpen klandestino bat egingo digula sentitzen dugu, *Leturiaren egunkari ezkutua* (Elkar, 1993).

Askotan kostatu egiten da titulu baten magia esplikatzea eta batzuetan kostatu egiten da titulu batzuk ze magikoak diren sinistea. **Ramon Saizarbitoria**k *Egunero hasten delako* (Erein, 2000) deitu zion modernotasun literario berri baten ordu inauguralean idatzi zuen eleberriari, eta titulu egokia jarri zion euskaldunok horrenbestean atzeratu dugun modernotasunari, behin eta berriz lortutakoa galdu eta sustarretik eraiki behar izan duen euskal kulturari, eta tontorretik hurbil zegoenean, maldan behera erori denean, Sisiforen egoskorkeria miresgarriarekin, berriz lanean hastea erabaki duen bere eta gure herriari.

© MONTSE VELANDO



> "La prostitución es la forma de violencia de género más radical que existe"

# LORENZO SILVA Y NOEMÍ TRUJILLO

**Lorenzo Silva y Noemí Trujillo regresan con una nueva entrega de su serie policiaca protagonizada por la inspectora Manuela Mauri. *La Innombrable* no es sólo una novela de homicidios, es también un grito de denuncia, como explica este matrimonio de escritores.**

**Este libro reconstruye una trama que capta a menores mediante la droga para prostituirlas. ¿Hasta qué punto es real lo que se cuenta?**
**N.T.** Nos hemos inspirado en un caso real, pero no pretendemos hacer true crime, es solo un punto de partida. Solo hay que escribir "prostitución de menores" en Google para comprobar, con tristeza, que la justicia española investiga casos de captación de menores en todo el país y que con regularidad surgen noticias relacionadas con el tema.
**L.S.** También conocemos a profesionales policiales que lidian con este tipo de asuntos, pero hicimos un esfuerzo por distanciarnos de los casos reales y por crear unos personajes de ficción que nos permitieran llegar al fondo de la historia sin dañar a nadie.

**Esta novela tiene ánimo de denuncia.**
**N.T.** Por supuesto que sí. La novela negra tiene una larga tradición de denuncia social, no es nada nuevo. A mí me interesa la posibilidad de señalar los problemas de nuestra sociedad.
**L.S.** Está bien entretener, intrigar, conmover, y sin eso posiblemente no hay literatura: pero si uno puede cumplir, en alguna medida, la función de señalar el mal –que según Sender era irrenunciable para el novelista–, la obra tiene un plus.




**LA INNOMBRABLE**
Lorenzo Silva
y Noemí Trujillo
DESTINO

**El debate sobre el consumo de la prostitución está en el centro de la trama.**
**N.T.** *La innombrable* muestra la gran mentira de la captación, que siempre se produce con engaños, y que existen condicionantes que impiden la salida de la prostitución. Buscamos mostrar los vínculos entre la prostitución y la violencia. En el siglo XXI no es aceptable hablar de consumo de prostitución, porque atenta contra los derechos humanos y es la forma de violencia de género más radical que existe.
**L.S.** Al margen de justificaciones morales, siempre precarias –a mí me cuesta creer que alguien sea enteramente libre para convertirse a sí mismo en mercancía–, las secuelas físicas y psicológicas en quienes se prostituyen, y la cobertura que este submundo ofrece a la violencia, a la trata y a la explotación de menores son efectos indeseables que cualquier sociedad debería tratar de erradicar.

**La adolescencia y las drogas es otro de los pilares de la novela.**
**N.T.** En la historia la joven Susana se prostituye para conseguir drogas. Esa es una mala decisión. *La Innombrable* no es solo una novela sobre la adolescencia, es un libro que habla del peso que tienen las decisiones que tomamos en nuestra vida.
**L.S.** La adolescencia es más crucial de lo que tendemos a creer. Siempre recuerdo, por la parte que a mí me toca, que fue en plena adolescencia cuando decidí ser escritor y me tracé el plan de vida que cuarenta años después intento seguir cumpliendo. Llevo casi treinta años recorriendo institutos de enseñanza media y en mi conversación con los chavales siempre trato de trasladarles esa idea: estáis en el momento en el que de verdad empezáis a ser y haceros vosotros mismos. Y las decisiones son sólo vuestras, pero todas tienen consecuencias.

**La inspectora Mauri se enfrenta a la investigación mientras atraviesa por un grave problema de salud. ¿Con qué intención?**
**N.T.** ¿Os imagináis al gran Sherlock Holmes enfermo? ¿O a la icónica Miss Marple? Los detectives del policiaco clásico jamás enferman: son invulnerables. Es la novela negra contemporánea la que tiene la posibilidad de mostrar a detectives de carne y hueso, que enferman como nosotros y que, en ocasiones, son vulnerables.
**L.S.** Los seres humanos acometemos nuestras aventuras desde la fragilidad de nuestros cuerpos y nuestras almas. Y eso a menudo se omite, cuando es un factor que redondea el significado de las historias.

**¿Cómo es el proceso de escribir a cuatro manos?**
**N.T.** Cada vez que he escrito con Lorenzo ha sido diferente. Yo puedo escribir a cuatro manos con él porque creo en la literatura como algo compartido.
**L.S.** Respeto a las ideas ajenas y confianza en el otro. Hablando mucho, teniendo una misma idea sobre por qué y para qué se cuenta la historia, y tratando de llevarla al papel con un estilo que nos represente a ambos.

**KAROLINA ALMAGIA**
Periodista

La entrevista completa:
https://labur.eus/lorenzonoemi

# MIQUI OTERO

**Miqui Otero ha sentido la necesidad de parar. De detenerse en mitad del desconcierto y mirar al mundo desde la diversidad que ofrece una verbena de verano en un pueblo rural. Es un momento y es un lugar en el que coinciden personas que jamás se hubieran encontrado en otros contextos. Son los personajes de *Orquesta*, un libro coral que logra sujetar el ritmo acelerado de la época colapsada que habitamos y arroja algunas claves para entenderla.**



© CECILIA DUARTE

**"No vais a olvidar esta noche jamás". Es la primera frase. Cuánta fuerza. Los párrafos que le siguen van introduciéndonos poco a poco en lo que será la historia.**

El escritor Kingsley Amis, padre de Martin Amis, solía decir: "Yo sólo voy a leer novelas que empiecen con la frase `sonó un disparo'". Yo le doy muchísima importancia al inicio. Más aún en tiempos como los actuales, en los que hay una sobresaturación de estímulos. Aunque sea con un ritmo pausado, sea como sea, el arranque tiene que prometer algo.

**A continuación, presenta con detalle a todos los personajes y logra, sin duda, una lectura activa y atenta.**

> *"Se leen novelas porque las novelas ordenan y articulan el caos de la vida"*

Quería un mundo poblado, no decir "había mucha gente en la verbena". Quería un baile de caras, quería generar la ilusión que tú vives en la vida real, cuando llegas a un lugar, y al principio no conoces a todos y hay un momento de confusión y luego los vas individualizando poco a poco a través de algo que cuentan, de un rasgo físico, o de un movimiento. Para mí todo eso era muy importante.

**Y, ¿por qué era importante hablar desde un nosotros colectivo?**

Hay algo que me irritaba de nuestro mundo y es el hecho de que todo está segregado en burbujas. Generacionales, de gusto, o de lo que sea. Y creo que incluso la literatura se ha contagiado, que cuando se explica una novela, se expone cómo aborda este tema concreto, para etiquetarla muy rápido. Y, por otro lado, casi con una segmentación de nicho de mercado: "Esta novela es una novela generacional para lectores entre 24 y 27 años, con el pelo verde". Uno de los primeros impulsos de la novela, que luego trajeron consigo el hecho de ir a una verbena de verano en lo rural, fue plantearme la idea de escribir desde un nosotros que, de alguna manera, reventara estas burbujas. Una novela que fuera ancha, que mostrara la diversidad de la vida. Una novela que planteara un nosotros que no podía ser idealizado, que no podía estar libre de conflicto o de problema.




**ORQUESTA**
Miqui Otero
ALFAGUARA

**Uno de los personajes dice "Dios existe porque nos lo hemos inventado. Y el Diablo también". ¿Creer es sobrevivir?**

Todo tiene que ver con lo que pasa realmente, y con lo que nos inventamos. Con lo que sucedió en el pasado y con las leyendas. Porque hay cosas que no sucedieron pero que si la gente las explica es como si hubieran sucedido, y existen. Cuando estás estudiando matemáticas en el colegio te dicen que no lo entiendes hasta que sabes explicarlo. Ocurre lo mismo con el mundo. El mundo es muy caótico, no lo entendemos y por eso intentamos contarlo. Por eso se leen novelas, porque las novelas articulan y ordenan el caos de la vida.

**TERESA SALA**
Periodista

La entrevista completa:
https://labur.eus/miquiotero



# GOIATZ LABANDIBAR

**Aspaldian emankor dabil Goiatz Labandibar (Oiartzun, 1985), eta apirilean liburu berri bat kaleratu du: *Zoo*, hamabi istorioz osaturiko bilduma, era guztietako gizon-emakumeen erretratuak eskaintzen dizkiguna, bihurri eta jostalari, ezinbestez irribarre batekin irakurri beharrekoa.**

**Zer topatzen du kanpinera doan batek?**
Kanpinera doana, ziurrenik, espektatiba batzuekin doa. Oporretarako aukeratzen ditugun eremuak dira, eta oporrak, orokorrean, lasaitasunarekin eta gozamenarekin lotzen ditugu. Hortik haratago, uste dut kanpinak esperimentu sozial oso interesgarria direla. Mikrogizarte bat dira, txikira eramanda, bere estratifikazio eta guzti, eta akaso horregatik dira bizipenak askoz intentsoagoak, harremanak askoz estuagoak.

**Eta zer topatuko du liburu honen irakurleak?**
Liburu honetako orrialdeetan irakurleak topatuko ditu bere bizilagunak, lankideak, lehengusuak, eta baita bere burua ere: gaur egun den gurasoa, duela urte batzuk izan zen nerabea, eta baita noizbait izango den erretiratua ere. Guk guztiok osatzen dugun gizarte honen faunako ale oso errekonozible batzuk topatuko ditu kanpineko biztanle hauengan, egunerokoan kezkatzen gaituzten edo gertatzen zaizkigun istorioak bizituz.

**Zer esango zenuke ipuinen tonuaz eta estiloaz?**
Esango nuke nire orain arteko narrazioetatik badirela ezberdinak *Zoo*ko istorioak: batez ere tonuan. Oso liburu umoretsua dela esango nuke. Irakurleak ongi pasatuko duela uste dut, barre egingo duela. Oporretan ari bada irakurtzen, gozatuko du. Eta ez badago oporretan, oporrak iristea desiratuko du. Duela ez asko, literatur kritikari batek esan zidan “freskoa” izenondoa erabiltzen dutela liburu bati buruz gauza onegi asko esateko ez dutenean baina egurra eman nahi ez dutenean. Nik uste dut liburu hau badela freskoa, eta ez dela batere despektiboa freskotasun hori.



**ZOO**
Goiatz Labandibar
ELKAR

# IÑAKI PETXARROMAN

**Distopiaren eta *thriller*raren artean mugitu da Iñaki Petxarroman (Lasarte-Oria, 1973) bere azken eleberria osatzeko: *Lehendakariaren alaba*, irakurlea probokatzen duen muturreko egoera deskribatzen duena, baina bere barne-logikan guztiz sinesgarria.**

**Zer urte tarte hartzen du *Lehendakariaren alabak*?**
Eleberiak bi narrazio hari dauzka. Bat, osorik, 2040. urtean garatzen da. Besteak 2026tik 2040. urtera egiten du aurrera, modu kronologikoan.

**Ingurumenaren gaineko zure kezkak eraman dituzu nobelara.**
Klima eta ekologia krisiak oso present daude nobelan, eta baita eragin ditzaketen ondorio larrienetako batzuk ere, besteak beste, ur horniduran. Esan daiteke, gainera, hori dela eleberriaren gakoa, gertakarien katea abiarazten duena. Edozein moduz, ingurumenarena ez da kezka bakarra: toki berezia hartzen dute Euskal Herriaren eta euskararen etorkizunaren kezkek ere.

**Ez dakit esan dizuten benetako irrkaz irakurtzen dela?**
Gertukoek esan didate bai, irakurtzen hasi eta kateatuta geratu direla, amaitu arte ezin izan dutela bukatu. Istorioa thriller moduan garatu dut, nahiz eta zehazki helburu hori ez izan, eta horrek narrazioaren erritmoa bizkortzea eragin du.

**Marraztu duzun panorama aski ezkorra da; hala dakusazu gure etorkizuna?**
Ez dut uste bereziki ezkorra naizenik. Liburu hau idazteko garaian 2040ko balizko Euskal Herrian koka litekeen istorio bat egitea zen nire asmoa, eta esango nuke modu pitin bat probokatzailean idatzi dudala. Planteatzen diren eszenatokiak agian muturrekoak izan daitezke: erakunde autonomikoen etena, Espainian eskuin muturra gobernuan, euskara bizitza publikotik desagerrarazia, ura Euskal Herritik Espainara indarrez eramana... Hauetako hipotesi bakar bat ziur gertatuko denik ez dut sinesten berez, baina esan dezala irakurleak ea, gertaerek horretarako bide emanez gero, erabat ezinezkoa iruditzen zaion benetan.



**LEHENDAKARIAREN ALABA**
Iñaki Petxarroman
ELKAR



© EREIN







**LANBROA**
Pello Lizarralde
EREIN

**Elkarrekin tentsio handiko ordu batzuk pasatutako bi pertsona ditu protagonista Mikel Lizarralderen *Lanbroa* nobela berriak, Xabier eta Maialen. Denboran laburra bada ere, elkarrekin bizi izandakoaren intentsitateak bien arteko lotura estu eta iraunkorra ezarri du.**

**Zerk bultzatu zaitu Xabier eta Maialenen arteko enkontru hau irudikatzera?**
Nire aurreko liburu guztietan bezala, honen sorreran ere irudi bat dago, eta oraingoan, gainera, esaldi bat. Irudi horiek urteetan izaten ditut buruan jiraka zer eman dezaketen ez dakidala. Halako batean, ezin jakin nola edo zergatik, irudia erabat ezartzen da, eta konturatzen zara kontatu nahi duzuna idazten hasteko bidea ematen dizula. Hari nagusia zehaztuta, lanaren alderik inportanteena heldu da: galderak. Kontua ez da zer kontatu nahi dudan, baizik zein diren hartu behar dudan lan horrek eragiten dizkidan galdera esentzialak. Niretzat ez dira galdera samurrak izaten. Erantzun bat baino gehiago izaten dute, eta, jakina, idazten abiatzen naiz konbentziturik irakurleak ere inoiz bere buruari haiek berak edo antzekoak egin dizkiola. Hori lortuz gero, ni pozik. *Lanbroa*k dakartzan galderak memoriari eta ahanzturari lotuta daude, eta iraganaren bihurguneetan ezkutaturik diren infernu txikietatik ateratzen dira.

**Zein izan dira kasu honetan galderak?**
Beste asko atera litezke, baina hara erabakigarrienak: *Gauza gara nahi duguna gogoratzeko eta ahazteko? Zer irabazten dugu ahazten dugunean? Zer galtzen eta zer irabazten dugu ahazten gaituztenean? Zer gara, zerbait bagara, gainerakoen oroitzapenetan?*

> “Lanbroa-k dakartzan galderak memoriari eta ahanzturari lotuta daude”

**Zaila da Xabier eta Maialenen arteko harremana definitzeko hitz egokia bilatzea.**
Bi protagonistak ez ziren elkartu biek hala erabaki zutelako, eta horrek dena baldintzatzen du, ezin dituzte toki beretik juzgatu eta kontatu elkarrekin eman zituzten orduetan gertatutakoak. Jakina, gogoratzen dituztenak ere ez datoz bat, eta kontua ez da norena den kontakizun zuzenena, baizik elkarrekin emandako ordu haiek zer marka utzi zieten batari eta besteari, eta zer egin behar izan zuten aurrera jo ahal izateko. Hala ere, inportanteena ez da zertaz oroitzen zaren. Arazoa beti orainari lotuta dago. Gertakari hark utzitako seinalearen gainetik galderak daude: *zerbait ote naiz oraindik beste horren gogoan? Eta izatekotan, zer?*

**Irakurri ahala, ikusi, ukitu, entzun, usaindu eta kasik ibili ere egiten da paisaia.**
Ez zait sekula interesatu narrazio psikologikoa eta horri jarraituz sortzen diren erretratuak. Neurri batean zaharkitua iruditzen zait. Idazteko orduan ez dut *esan* nahi izaten, nahiago dut *erakutsi*. Gogoko ditut narrazio aratzak eta xehetasunera jotzen dutenak. Eta arestian aipatzen nuen *erakuste* horretan ezinbestekoa da zentzumenen bidez jasotzen duguna ekartzea. Munduan gabiltzala, batik bat bakarrik gaudenean, dena ez da hausnarketa, ideia eta iritzi. Puska handi bat behaketak eta sentsazioek betetzen dute, eta horiek bildu eta ordenatu ondoren askoz errazagoa izaten da barruago daudenetara heltzea. Ez da bide zuzenena, eta askorentzat aspergarria eta geldoa izan arren, frogatua daukat beste batzuei sinesgarriagoa zaiela.

**JUAN LUIS ZABALA**
Idazlea



# ITSASO AMNIOTIKOA

Oihane Jakak (Donostia, 1985) bere lehenengo liburua eskaintzen digu: *Itsaso amniotikoa*, sentimenduz beteriko poema-bilduma, bizitzaren bi muturren inguruan ardaztua: haurduntze-erditzeak, batetik, eta heriotza goiztiar bat, bestetik.

**Bizitza eta heriotza eskutik helduta jarri dituzu zure liburuan...**
Bai, heriotza nahitaez da bizitzaren ifrentzua. Dena den, nire liburuan alderantzizko ordenan ageri dira: heriotza hasieran, eta bizitzaren sorrera, ondoren. Liburu hau amatasunetik idatzita dago batez ere, baina liburuko ama hori izan zen alabari begira ere jarri da, eta horrek ezinbestean eraman du haurtzaroan bizitako gertuko pertsona baten heriotzara. Nolabait amatasunak ekarritako gal(d)era berriek haurtzaroko gal(d)erak ere azaleratu ohi dituzte, eta horien isla ageri da poema hauetan. Liburua, beraz, heriotza horretatik abiatu, eta bizitza berrien sorrerara igarotzen da gero: haurdunaldietara, erditzeetara eta erdiondoko garaietara.

**Amaren bizitza-sortzea, poetaren literatura-sortzea: elkarren antzeko, elkarren etsai?**
Elkarren etsai ez behintzat, ez bada amatasunak denbora gutxi uzten duelako idazketarako, kar-kar... Gainontzean, nire kasuan behintzat, bai ama izan nahia, eta bai poemen idazketa, bibiak etorri dira barne bulkada batetik. Biak dira sorkuntza prozesuak, liburu honetan elkarren eskutik doazenak, amatasunak inspiratuta idatzi baititut poema gehienak.

**Lehenengo liburua duzu hau. Nolako esperientzia izan da?**
Oso ederra. Betidanik poema solteak idazteko zaletasuna izan dudan arren, hau izan da bilduma bat osatu dudan lehen aldia. Bergarako idazle eskolak lagundu dit horretan: batetik, **Tere Irastortza**ren poesiari buruzko klase inspiratzaileek, eta, bestetik, **Karmele Igartua** sorkuntza bekak. Beka horri esker ausartu naiz bilduma argitaratzera.




**ITSASO AMNIOTIKOA**
Oihane Jaka
ELKAR

---

# MANTTALINGO ALABA




**MANTTALINGO ALABA**
Mikel Etxaburu
PAMIELA

*Manttalingo Alaba* poema liburuan (**Ernestina de Champourcin** XXXIII Poesia Saria, Pamiela) olatu txikiak bezala datoz eta doaz poemak. Joan-etorri bakoitzean ezabatzen ditu itsasoak Saturrarango kartzelan gatibu izan zituzten emakumeen minak eta gela hezeetan erditu zituzten haurren izen-abizenak.
Orain udatiarrek autokarabanak aparkatzen dituzten toki berean egon ziren gatibu 4.000tik gora emakume. Eta kontatu didate itsasoak denen izenak dakizkiela, banaka-banaka oroitzen dituela han hil ziren 166 andre, haur eta gazte. Oroitzen dituela errudun sentitzen delako, ez zelako oldartu arroken kontra. Eta horren ordez, hildako haurren izenak ezabatu zituelako, olatuz olatu eta minez min.
Gazteak ginenean ordu bete inguru behar izaten genuen Ondarroako Arrigorri hondartzatik Saturraranerako bidea egiteko. Egin gabe zegoen gaur itsas ertzetik doan pasealekua, eta arrokaz arroka abiatzen ginen marea behera zegoenetan. Bidean aurkitzen genituen kirrixkak eta izkirak; anemonaren bat edo beste eta lapak, haitzei itsatsita, mutilatutako oroitzak bezala, zatika eta deslotuta.
Gaur egun, udatiarrek Ezkilantxarriri begira aparkatzen dituzte autokarabanak. Kartzela zegoen leku berean biltzen dira asteburuaz gozatzeko. Eta gure haurrekin jolasten dugun toki berean hil ziren bertan preso zituztenen haurrak. Gaur bainu hartzen dugun olatu berean ito ziren bertan preso zituzten emakumeak. Gaur hondarrean egin dugun zulo berean gorde zituzten maite genituenen azal hautsiak.
Eta min berak asaldatu nau urte luzeetan zehar: nola deitzen ote zen autokarabana horrek okupatzen duen eremu berean torturatu zuten emakumea; ur kresalarekin garbitzen ote zuen ilea; zer idatzi ote zuen hondar bustian, orbain zoli bat bezala, eta batez ere, zergatik ez ote zen oldartu itsasoa arroken kontra. Eta horren ordez, zergatik ezabatu zituen hildako haurren izenak, olatuz olatu eta minez min.
Horrela sortu da *Manttalingo alaba* poema liburua, hondartzetako dunak bezala, denborak txikitutako oskolez eta oroiminez.

**MIKEL ETXABURU OSA**



# IÑIGO ASTIZ

**Hamasei ipuineko liburua kaleratu du Iñigo Astizek (Iruñea, 1985). Egunerokoan jarri du lupa oraingoan, eta hor gertatzen diren bitxikerietan. *Monogamoak* (Susa) deitzen da.**




**MONOGAMOAK**
Iñigo Astiz
SUSA



© GARAZI HIDALGO

> “Egunerokoaren arrarotasuna lehen lerrora ekarri nahi nuen”

**Poesiatik ipuin liburura pasatu zara. Nolatan?**
Oso gutxitan daukat aurrez erabakitako plan bat. Unean uneko gogoari jarraitzen diot. Eguna tekleatzen pasatzen dut, Berria egunkarirako artikuluak idazten ditudalako. Gogoratzen dut *Kixotenean* kronika-liburua atera nuenean disfrutatu nuela lehen aldiz prosarekin. Plazer horri segika joan dira agertzen ipuinak denbora guzti honetan zehar. Eta agertzen joan direnez metatu dira. Eta metatu direnez liburu bat osatu dute.

**Monogamietan arakatu duzu?**
Deitu dut *Monogamoak* ze iruditu zait hitzak bere horretan sekulako tentsioa daukala. Beti apurtzeko zorian dagoen zerbait da. Nahiz eta iraun, nahiz eta eutsi. Maitasuna edo sexu-harremanak bideratzeko eredu hauskor eta tentsionatua da. Normaltzat jotzen duguna ez da batere normala. Oso gauza arraroa da. Ipuinetan hori ere agertzen dela iruditzen zait. Izan ere, egunerokoan gertatzen direnak oso gauza inprobableak dira. Eta, hala ere, hor daude eta irauten dute. Egunerokoaren arrarotasuna lehen lerrora ekarri nahi nuen.

**Peter Fischli&David Weiss artisten lan bat aukeratu duzu azalerako. Oreka joko bat dirudi.**
Irudi horretan eguneroko objektuak ikusten ditugu, eta nola objektu horiek beste zerbait bihur daitezkeen jolasaren bidez. Era berean, ez diete uzten izaten eguneroko objektu. Ipuinetan badago arrarotzearen ideia hori, eta orekaren jolasa ere asko gustatzen zait. Ipuinak edozein familia bezala dira. Kide bakoitza badirudi besteaz oso bestelakoa, eta halere elkarrekin bazkaltzen dute.

**Giza harreman korapilatsuak errepikatzen dira.**
Giza aurrizkia daraman guztia da korapilatsua.

**Eta umorea.**
Umoreak balio dit pentsatzeko umorerik gabeko diskurtsoek uzten ez diguten moduan. Pentsamendua eta errealitatea ulertzeko modu bihurgunetsuagoak ematen dizkit, eta hori aprobetxatzen dut testuetan. Uste dut umoreak inteligentzia propio bat daukala, niri oso interesgarria egiten zaidana. Idaztean gehien gustatzen zaidana hori da: dakizunaz aparte nola agertzen den ez dakizun hori. Idazterakoan horrek harrapatzen nau ni.

**Hala ere, umorea zuk jartzen duzu eta ez hainbeste pertsonaiek.**
Kontatzen dena ez da umoretsua. Aurkezpenean pentsatuta daukat esatea kanoikadaka ibili naizela euli batzuk hiltzen, eta tigre batzuk kortxitozko pistola batekin eraso ditudala. Izan ere, begiradak egiten du umoretsu edo ez umoretsu errealitatea, zeren ez dago interpretaziorik gabeko errealitaterik. Umorea ikuspuntu kontu bat da, baina seriotasuna ere bai.

**Gustura gelditu zara emaitzarekin?**
Nik lan asko egin dut, baita Leire Lopez eta Itziar Ugarte Susako editoreek eta gainerakoek ere. Literaturaren alde kolektiboak asko lasaitzen nau. Halere, inprentak testuak orrietan aplastatzen dituenean jada berdin zait. Hori mugiezina da, eta niri gauzak mugitzea gustatzen zait. Nahiago dut jarduna ondorioa baino.

**ANA ABARISKETA**
Kazetaria



# ALAITZ MELGAR

***Josefa, neskame*** **du izena Alaitz Melgar Agirrek (Barakaldo, 1984) Tene Mujika bekaren laguntzaz idatzitako lehen liburuak. Printzipioz bere amonaren biografia, baina barrura sartu ahala beste osagai asko dituena.**

**Nor zen Josefa Agirre Etxeberria?**
Gure amama izan zen. 1927an Azpeitian jaio eta beti ibili zen neskame edo antzeko lanetan. Batzuetan familiaren baitan jardun zuen, eta, besteetan, dirudunentzat: Espainiako dukesa batentzat lan egin zuen Donostian. Ingalaterran ere egin zuen lan. Bertan, haurdun geratu eta ama ezkongabea bihurtu zen.

**Zergatik izan da horren zaila bizitza hori berreraikitzea?**
Ba, batik bat emakumea izateagatik. Izan ere, haren bizitza beste emakume askoren bizitzaren adibidea izan daiteke. Horrelako emakumeak ikusezinak izan dira, eta oraindik ere badira. Gizartean garrantzitsutzat hartzen ez diren lanak egin zituen: haurrak zaintzea, garbitzea, ama izatea. Gure amama beti ibili behar izan zen gizartearen arau ofizialetatik at. Lan-kontratuak ahoz onartu zituen, ez zen beti erroldatu bizi izan zen herrietan… Beraz, ez dut dokumentu ofizial askorik aurkitzerik izan. Eta izan zuen bizitza zailagatik, gure amamak ez zion inoiz ezer kontatu inori. Sekretuz betetako pertsona izan zen, eta egoera gogorrak bizi izan ditugu familian horren ondorioz.




**JOSEFA NESKAME**
Alaitz Melgar Agirre
ELKAR

**Amamaren biografia idatzi ahala, zu zeu ere deskubritu zara, eta biluztu...**
Haren biografia ikertzen ari nintzela, ikerketa-bidaia kontatzea erabaki nuen datu gutxi aurkitzen ari nintzelako. Eta ikerketa kontatu ahala, nire bizitzarekin konexioak egiten hasi nintzen. Sorkuntza-prozesuan oharkabean gertatu zen, baina, atzera begiratuta, agian behar-beharrezkoa zen. Neure identitateari berrikuspen sakona egin behar izan diot, eta ama eta biok, amamaren bizitza deskubritu ostean, iraganarekin nolabait baketu gara.

# PRUDEN GARTZIA

**Pruden Gartziak (Oñati, 1964) saiakera berri bat ondu du: *Euskaldun fededun*, hainbat libururen iruzkinetatik abiaturik, esaera ospetsu horren goiti-beheitiak aztertzen dituena: ea hala izan den, noiztik, noiz arte eta zergatik.**

**"Euskaldun fededun" izatea gure esentzia da?**
Fenomeno historiko bat da, ororen buru. Alegia, historiaren harian sortu, garatu, krisian sartu eta gaur egun ia-ia desagertuta dagoen fenomeno sozial bat. Ez da ezer esentziala, Jainkoak edo naturak emana. Bi hitzetan esateko, denbora luzez euskaldunek, eta aldameneko espainol edo frantsesek, ia-ia guztiek pentsatzen zuten euskaldun izatea eta katolikoa izatea sinonimoak zirela estriktoki. Hori zen ideia nagusia hemen, hots, hizkera soziologikoan esanda, hegemonikoa. Bazegoen bestelakorik ere, noski, baina irudi nagusiaren marjinetan gelditzen ziren.




**EUSKALDUN FEDEDUN**
Pruden Gartzia
ELKAR

**Frantziako Iraultzan jartzen duzu uste sozial horren hasiera; zergatik?**
Euskaldun gehienentzat, jakina, gaur horrelako ezer esatea absurdo hutsa da. Baina geure buruari galdetu behar diogu noiz hasi zen jendea ideia hori aintzat hartzen eta noiz bihurtu zen hegemonikoa. Nire ustez, Frantziako Iraultza da gakoa. Ondorio horretara, bereziki, **Joan Antonio Mogel**en *Peru Abarka* (1802) aztertuz iritsi naiz.

**1960 aldean amaitzen da definizio hori. Zergatik hain bortizki?**
60etako hamarkadan egundoko aldaketa sozialak gertatu ziren Euskal Herri osoan, eta horietako bat katolizismo horren bat-bateko krisia izan zen, guztiz bortitza: euskal seminarioetan gertatu ziren istiluak eta seminaristen ohiltze masiboak horren termometro onenetako bat dira. Espainiako Gerra Zibil osteko katolizismo triunfalistaren apogeoaren ondoren ez zen beherakada mantso bat etorri, amildegi sakon bat baizik. Baina nire hausnarketa hor amaitzen da.



# ERUPCIÓN

## La última gran historia del creador de *Parque Jurásico*

**Michael Crichton**, creador de *Parque Jurásico* y *Westworld*, tenía entre manos un proyecto apasionante en el que había trabajado durante años antes de su prematura muerte. Sabiendo lo especial que era para él, su viuda, **Sherri Alexander**, guardó el manuscrito hasta que encontró al autor adecuado para completarlo. El escritor que eligió es uno de los narradores más populares del mundo: **James Patterson**. Su ritmo narrativo convierte el planteamiento del gran Crichton en el *thriller* más esperado en años.




**ERUPCIÓN**
Michale Crichton · James Patterson
RBA

Una erupción histórica está a punto de destruir la isla principal de Hawái. Pero un secreto guardado durante décadas por los militares es mucho más aterrador que cualquier volcán. La cuenta atrás ha empezado y los protagonistas de este trepidante *thriller* tienen en sus manos evitar una catástrofe mundial.

**Don Winslow**, autor de *El cártel*, *El poder del perro* y *Corrupción policial*, ha destacado que "Michael Crichton y James Patterson se han unido para crear una novela que es tan emocionante y asombrosa como *Parque Jurásico*. Cada página de esta novela demuestra el talento de dos gigantes de la escritura. Llena de suspense, aterradoramente real y absolutamente inolvidable".

Según ha afirmado la viuda de Michael Crichton, James Patterson es el mejor autor que podía haber encontrado para terminar la obra póstuma de su marido. Patterson es uno de los narradores más populares de los últimos tiempos. Es el creador de personajes y series inolvidables, incluidos *Alex Cross* o *el Club de las Mujeres contra el Crimen* y es coautor de novelas número uno en ventas junto a nombres como **Bill Clinton** y **Dolly Parton**. Ha sido galardonado con relevantes distinciones estadounidenses, como un premio Edgar, diez premios Emmy, el premio literario de la Fundación Nacional del Libro y la Medalla Nacional de Humanidades.

# POLÍTICA PARA INDIFERENTES

El nuevo libro de **Juan Carlos Monedero**, *Política para indiferentes*, aborda las posibilidades de alternativas a un modelo de sociedad, el actual, que cada vez da muestras de mayor agotamiento.




**POLÍTICA PARA INDIFERENTES**
Juan Carlos Monedero
FCE

Seamos conscientes o no, nos construyen nuestros enemigos. Es otra manera de decir que la sociedad siempre está en conflicto. Huir no funciona. Hace más de una década, las señales del agotamiento del modelo neoliberal ya estaban presentes y, sin embargo, no quisimos verlas. Tuvo que entrar en el Capitolio un loco con una piel de bisonte en la cabeza para que las democracias liberales miraran a los ojos al monstruo. Los cambios geopolíticos convocaron a la guerra por primera vez en treinta años en Europa, en Palestina se consuma un genocidio, América Latina es un continente en disputa y las muchas guerras en África, Oriente Medio y Asia parecen preparativos para un conflicto entre Estados Unidos y China. Un viejo mundo no se quiere marchar y al nuevo no se le deja venir. Las crisis son encrucijadas donde un solo paso en la dirección contraria nos lleva muy lejos de adonde en realidad deberíamos ir. Es tiempo de diagnósticos correctos.

Este libro nos muestra cómo, cuando cortamos todas las raíces que nos atan a nuestros principios morales, cercenamos nuestra propia humanidad. Y entonces, en nuestro desgobierno de las palabras tenemos que escribir nuevas voces en el diccionario, como *ecoansiedad* o *futurofobia*. Al no acertar en señalar como enemigos al hambre, la pobreza, la enfermedad, la explotación, la opresión, la desigualdad, el destrozo medioambiental, la guerra y la violencia, se convierten en enemigos la igualdad, la libertad, la fraternidad, la paz, la sostenibilidad, el internacionalismo y la esperanza.

La única autoayuda que funciona es la "autoayuda colectiva". Se llama política. Frente a soluciones individuales y como antídoto contra la indiferencia, esta suerte de *antimanual* quiere recuperar esa *Política* con mayúsculas.



# IRAULTZA BATEN BEZPERAK

Azken urteotan unibertso utopiko oso bat eraikitzen ari da **Asel Luzarraga**, Askayala herrian duena epizentroa. Duela pare bat urte argitaratu zuen *Esan gabe doa* eleberria, non anarkismora gidatu duen iraultza baten ondorengo hamarkadak irudikatzen baitira: ez iraultza bera, baizik eta haren bilakaera, pixkana eratutako zentzu komun eta bizimodu berria.

*Zortzigarren Hiria* argitaratu berri honetan, aldiz, Askayala bihurtuko zen herrialde horren nolabaiteko genealogia jaso du. Izan ere, liburu independente modura irakurri badaitezke ere, Luzarragaren istorio ugaritan ageri dira unibertso hori osatzera datozen keinuak, loturak eta oihartzunak. Eta, urrun kokatuta ere, gure inguruan ezagunak izan daitezkeen portaerak eta gertaerak ere ekarri nahi ditu gogora, hala nola, Errekaleorren sorrera eta Kukutzaren ixtea.

Bai *Esan gabe doa* hartan eta bai *Zortzigarren Hiria* honetan, eta hala izanen da trilogia osatzera etorriko den hirugarrenean ere, Simun Palsu idazle apokrifoa darabil Luzarragak, jolas modura: “Asmatutako herrialde batek bere idazlea ere eskatzen zuen, eta jolas horrek jarraipena izango du trilogiatik kanpoko hurrengo liburuetan ere, Askayalak asko baitauka emateko oraindik”. Horrela, Simun Palsu idazlearen pertsonaia asmatzeak aukera eman dio pentsatzeko zer rol beteko lukeen idazlearen figurak estaturik eta harreman merkantilistarik gabeko gizarte aske batean.

Bi istorio txandakatzen ditu *Zortzigarren Hiria* liburuak: predikari baten jarduna, batetik, eta auzo egitura berri baten sorrera, bestetik. Oraingoan ere, Luzarragak umorez blaitzen du kontakizuna. Bere lan guztietan ohiko osagaia baita hori: ironia fina izan daiteke batzuetan, beste batzuetan absurdora joko du, bai eta bihurrikeria itxura hartu ere. Egilearen hitzetan, “nik uste nire edozein testu interpretatzeko ez dela inoiz umorea ahaztu behar. Giltzarria da. Oraingoan, ordea, umorea hurrago dago karikaturatik, itxura absurdoa ere har dezake une batzuetan”. Nolanahi ere, denak dauka hor egoteko arrazoiren bat, eta ez dira keinu edo txiste hutsak. “Erronka da beti umorea, beldurra legez gauza oso pertsonala baita. Irakurleari lantzean behin irribarrea ateratzen bazaio, pozik ni”.




**ZORTZIGARREN HIRIA**
Asel Luzarraga
TXALAPARTA

# ETXE BAT NORBERARENA




**ETXE BAT NORBERARENA**
Yolanda Arrieta Malaxetxebarria
ALBERDANIA

Duela mende inguru zioen **Virginia Woolf**ek “idazleak dena duela kontra, idazten ari dena oso-osorik atera dakion gogotik”. Eta zehazten zuen “askoz ere handiagoak direla zailtasun horiek guztiak emakumeen kasuan, XIX. mende hasiera arte pentsaezina baitzen emakume batek gela bat izatea norberarentzat, are gutxiago zaratarik gabeko gela lasai bat, haren gurasoak txit aberatsak edo nobleak ez baziren behintzat”. Halaxe hasten zuen entsegu beteko aldarrikapena: Gela bat norberarena.

95 urte igaro dira ordutik eta andrazko idazleak agian izendatu du etxean gela bat norberarena; baina, gero, bizitza iragazi zaio zirrikituetatik, eta hasieran soilik norberaren gogorako izan behar zuen gela hura “denen onerako” gela bilakatu da: arropak zintzilikatzeko barrunbe, lekurik ez dutenen biltegi, gonbidatuentzako logela edota guztiak batera.

Eta bizitzak denboraz blaitu du guztia. Ondorioz, andrazko idazlea zahartzaroaren umezarora iritsi dela ohartu da; ama zaharrak alabengan islatzen duela bere ama-beharra, seme-alabek soka berriez luzatzen dutela zilbor-hestea, tribuak ez duela zaintzaile berririk aurkitzen etxea gobernatzeko, zaurgarritasun-garaietan ez dela dotorea aldarrikatzea gela bat norberarena.

Hortaz, andrazko idazleak gela nomadak bilatu behar izan ditu bere gogotik aritzeko: wifidun kafetegiak, liburutegietako txoko epelak, langune partekatuak, bazterrak… leku bat bere arimarako. Ihes beteko gela nomadak izan dira, behin behinekoak. Baina berak ez du ihes gehiago egin nahi. Andre idazleak etxe bat nahi du. Bere gogotik aritzeko etxe bat. Bere zahartzaroari opatzeko etxe bat: etxe bat norberarena.

Etxe hori eraikitzeko lanak eta pausoak kontatzen ditu liburuak poesiatik gertu dagoen entseguaren bidez, bost ataletan banatuta:

· (H)abiaguneak: planak eta planoak.
· Oinordetzak: odolaren mintzoa, kumak eta eskolak.
· Bitarteak: nahiak, ahalak eta halabeharrak.
· Diasporak: lur berri baterako amuak.
· (H)ariguneak: (h)abia berrietarako lumak.

Andre idazle gisa definitutako narratzaileak josten ditu atalok, testu labur eta trinkoen bidez.



elkar fundazioa

# AEK-Korrikak jaso du Ibilbideari elkar saria

**Maiatzaren 23an elkar-en egoitza nagusian, Adunan, banatu ziren 2024ko elkar sariak, alegia, urtero ematen den Ibilbideari saria eta bi urtetik behin banatzen den Joseba Jaka beka.**

Ibilbideari saria euskara eta euskal kulturaren alde urteetan egindako ekarpena saritzeko sortu zen eta 2024an AEKri ematea erabaki du **elkar** Fundazioak. AEK eta Korrika omendu nahi izan ditu era horretara. 60ko hamarkadan helduen euskalduntzea helburu zutela sortutako gau eskolen mugimendua izan dute gogoan eta handik hona euskararen normalizazioan egindako ekarpena: "Milaka lagun euskaldundu da AEK-ko euskaltegietan, eta milaka lagun hurbildu da euskarara eta euskararen aldeko ekimenera AEKren lanari esker, tartean 1980tik antolatzen duen Korrikaren eskutik". Gotzon Huegun eskultoreak egindako eskultura jaso zuten AEK eta Korrikako ordezkariek eta haien izenean Aitziber Balantzategik eta Ane Elordik saria eskertu zuten, eta gogoan izan zituzten urteetan AEKn eta Korrikan aritutako guztiak, "saria haiena ere badelako". Elordiren hitzetan Korrikan parte hartu duten milaka lagunek erakusten dute euskal herritarren artean dagoen euskararen aldeko kontsentsua: "Hizkuntza berreskuratzearen aldeko hautua egin dute den-denek. Azken Korrikan ere argi adierazi dugu bagarela nor, euskararen aldeko adostasun zabala dagoela".

Euskal Herriko erakunde publiko zein gizarte eragileetako ordezkariak eta kultur munduko hainbat lagun bildu ziren urteroko zita bihurtu den elkar sariak emateko ekitaldian: Bingen Zupiria (Eusko Jaurlaritza); Eider Mendoza, Jon Gurrutxaga, Garbiñe Mendizabal (Gipuzkoako Foru Aldundia); Kristina Rodriguez (Adunako udala); Martin Aramendi (Uema) Arantza Rojo, Olatz Peon, Xarles Iturbe (EAJ); Laida Begiristain, Josu Aztiria, Luix Barinagarrementeria (EH Bildu); Iban Arregi, Amagoia Mujika (Berria); Jose Migel Aiertza, Paul Lizeaga (Adegi); Agurne Barruso (Ikastolak); Aitzol Astigarraga, Amaia Zarrabeitia (Elhuyar); Iñaki Uria, Ainhoa Jauregi (Hamaika) edo Joxe Jabier Iñigo (Naiz), besteak beste.



## Josu Goikoetxearentzat izan da Joseba Jaka beka

Joseba Jaka beka, bi urtean behingo sormen beka, 2024an literatura lan bat egiteko eman zaio **Josu Goikoetxea Gezuraga** idazleari. Hamar mila euroko saria jasoko du bekara aurkeztutako *Hiltzailea eta beste ipuin batzuk* liburua idazteko. Urte beteko epea izango du horretarako. Beka erabakitzeko epaimahaia osatu duten Itziar Ugarte, Irati Majuelo eta Iban Zalduaren iritziz, "laginean aurkezturiko ipuinen kalitatea azpimarratu dute: originaltasuna, indarra, iradokitzeko ahalmena eta gehiago irakurtzeko gogoa." Beka jasotakoan, Josu Goikoetxeak eskerrak eman zituen eta "bete-betean" liburua idazten jarraitzeko asmoa azaldu zuen, eta beka "akuilu" izango duela horterrako. 2025ean helduko da, beraz, bekaren emaitza izango den liburua irakurtzeko garaia.



# LAS MONTAÑAS MÁS BELLAS DE EUSKAL HERRIA



© TXUSMA PÉREZ AZACETA

El plan que nos propone el nuevo libro de **Txusma Pérez Azaceta** no puede ser más atractivo. Se trata de ascender a una treintena de cumbres seleccionadas con un criterio único: su belleza. Y, a fuer de ser sinceros, el resultado responde a tan elevadas expectativas, tanto por las rutas descritas como por las cimas elegidas. *Ascensiones a las montañas más bellas* llega para convertirse, sin lugar a dudas, en un clásico del montañismo vasco.

Ya desde su cautivadora cubierta, el libro anuncia a los cuatro vientos que su contenido se corresponde con lo que promete en su título. Anboto exhibe su vertiginoso perfil para que lo disfrutemos desde la singular perspectiva que nos ofrece una de las cuevas que se esconden en la cresta de Udalatx. Una imagen soberbia de dos montañas que, por supuesto, se incluyen en el libro.

No hay duda de que, si tuviéramos que elegir una treintena de cimas para la lista de las más bellas de Euskal Herria, saldrían muchos nombres y muy dispares. Pero también es cierto que gran parte de ellos se repetirían a menudo, porque, por decirlo de manera rotunda, su belleza resulta indiscutible. Txusma Perez Azaceta ha seleccionado las suyas y, como se suele decir en estos casos, no están todas las que son, pero son todas las que están.

Su lista de elegidas combina todo tipo de cumbres, desde los modestos trescientos metros de altitud de Ogoño hasta portentosos dosmiles como Orhi, Arlas o Ezkaurre. Pero, ojo, la humilde cota de la costa vizcaína no desmerece ante los colosos pirenaicos. Su espectacular acantilado calcáreo cae a plomo más de doscientos metros sobre las bravas aguas del Golfo de Bizkaia.

Entre ambos extremos se sitúan grandes clásicos del montañismo vasco, encabezados por el imprescindible Larrunarri/Txindoki. Encontraremos al precioso Balerdi pastoreando el valle de Araitz, Iparla con sus alas extendidas sobre la comarca de Baigorri, la cima rocosa de Aratz erguida por encima de los bosques de Altzania y Untzueko Haitza dominante sobre el cerrado carrascal.




**ASCENSIONES A LAS MONTAÑAS MÁS BELLAS**
Txusma Pérez Azaceta
SUA EDIZIOAK

lonely planet




ESTE VERANO,
ORGANIZA TU VIAJE
PERFECTO CON
LAS MEJORES GUÍAS

Otros nombres, en cambio, sorprenderán a parte de la afición montañera, por ser menos conocidos y, en consecuencia, menos visitados. Pero, a buen seguro, no defraudarán a nadie cotas como Soratxipi, Andarto, Pagazelai o Castillo de Vallehermosa.

## ESPACIOS NATURALES, CASTILLOS Y RUTAS FOTOGRÁFICAS

La colección **EUSKAL HERRIA** publica seis títulos al año. Ascensiones a las montañas más bellas supone la tercera entrega del 2024, tras *Ama Lur miresgarria* o *Asombrosa Ama Lurra* (sendos libros en euskara y castellano, de **Amador Prieto** y **Joseba del Villar**) y *Rutas a frentes de guerra (1936-1945)*, de **Esther Merino**. En el segundo semestre se publicarán otros tres libros: *Rutas circulares por espacios naturales protegidos*, de **Begoña Fernández** y **Paulo Etxeberria**, *Castillos y palacios*, de **Javi Pascual**, y *Rutas fotográficas en la naturaleza*, de **Xabier Sukuntza**.

En cualquier caso, el autor se ha cubierto bien las espaldas porque, a cada ruta le ha añadido una montaña cercana que cualquiera incluiría en su lista de las más bellas. Esta segunda opción viene acompañada por una sucinta descripción de una ruta de ascenso, con lo que las posibilidades de planes montañeros se multiplican.

Como es habitual en los libros de la colección Euskal Herria, cada ruta aparece convenientemente descrita y acompañada por fotografías, un pequeño mapa y los datos prácticos necesarios. Las imágenes de las montañas elegidas explican, sin necesidad de palabras, las razones de su inclusión en la lista de las más bellas.

Además, el libro está prologado por el periodista **Juanma Sotillos** y la montañera **Maribel Armendariz**. También incluye una selección de montañas bellas del mundo a cargo de **Ramón Portilla**.

**HEKTOR ORTEGA**
Editor

# NOBEDADEAK



**ISLAS DEL CARIBE 1** (LONELY PLANET)
Alex Egerton
GEOPLANETA

Las islas del Caribe ofrecen una experiencia única y diversa que te cautivará desde el primer momento. Desde playas paradisíacas con aguas cristalinas y arenas blancas, hasta una rica cultura y una deliciosa gastronomía caribeña, estas islas lo tienen todo para un viaje inolvidable.



**A RIBEIRA SACRA**
**GUÍA VIAJERA Y RUTAS DE MONTAÑA**
Anxo Rial
SUA EDIZIOAK

Los ríos Miño y Sil definen A Ribeira Sacra, al suroeste de Galicia. Encontramos escarpadas laderas de granito, acantilados con viñedos y bosques de castaños centenarios, sosiego y templos. Los otoños son dorados y en los fríos amaneceres, las brumas trepan entre las vides.



**UMEEKIN EGITEKO IBILBIDEAK. ARABA**
Gorka López
SUA EDIZIOAK

Umeekin egiteko plan bila bazabiltza, liburu honetan ideia bikainak aurkituko dituzu. Arabako 35 txango hauek errazenetik zailenera daude antolatuta. Arabako kobazulo, baso, aintzira, ur-jauzi eta mendi andana daukagu zain.



**PARIS.** LA GUÍA HEDONISTA
VVAA
DORLING KINDERSLEY

Una guía para para conocer el mundo de otra manera. Almuerza en un *bouillon*. Asiste a la opéra Garnier. Conoce la arquitectura *haussmanniana*. Pasea por el parque Buttes-Chaumont. Descubre los museos. Curiosea entre los *bouquinistes* a orillas del Sena.



**MANUAL DE MONTAÑISMO**
Joaquín Colorado
DESNIVEL

Si quieres convertirte en un montañero todoterreno y sobre todo hacerlo con seguridad, este libro te ayudará a progresar correctamente sobre crestas, rápeles, ferratas, cuerdas fijas, glaciares y terrenos accidentados.



**ALBANIA**
VVAA
ALHENA

Albania, una de las joyas mejor guardadas del Adriático, se está convirtiendo poco a poco en un atractivo turístico para quienes salen en busca de lo auténtico en Europa.



# BENIZZEREN *BASATI*

**Euskal kantagintzaren zaharberritzearen premia begi bistakoa da Beñat Goitiaren iritziz. Helburu horrekin proposamena egin du, argi eta garden: birsorkuntza hori musika elektronikoaren bidez egin behar da. Horretarako sortu zuen Benizze eta horrela etorri da *Basati*, bere bigarren diskoa, Paradisu Zinema musika bekaren emaitza.**




**BASATI** (CD / LP)
Benizze
ELKAR

2023an, EHZ Festibalak, Antxeta Irratiak eta Elkarrek Paradisu Zinema musika beka antolatu zuten **Iñigo Muguruza** musikariaren oroimenez. **Beñat Goitia**rena izan zen aurkeztu ziren hogeita zortzi proposamenetako bat, eta irabazi egin zuen. Entzun bezain pronto, hiru epaileak proposamenaren freskura, argitasuna eta konbentzimenduaz jabetu ziren. Ñabardura askotako musika elektronikoa zekarren, oso ikusgarria eta oso esplizitua.

Beñatek berak honela azaldu du bere asmoa: “1960an, bidea ireki zuen Ez Dok Amairuk, abangoardia eta tradizio herrikoia uztartuz. Azken 20-30 urteotan, berriz, egoera soziopolitikoaren ondorioz, artean garbi islatu den izozte bat izan da. Gaur egun, izoztetik ateratzeko baldintzak badaudela uste dut. Pandemiak ere horretan lagundu du, haustura bortitzago bihurtuz. Testuinguru horretan kokatzen dut Benizze proiektua. Hausturarako proiektu gisa aurkezten dut, 60ko hamarkadan hasi zen Euskal Kantagintzan fase berri batean irekitzeko. Helburua da euskal eszenan musika elektronikoa protagonista bihurtzea”.

Bekaren babesean sortutako emaitza *Basati* diskoa da. Hamaika kantu dira, orotara, Beñat Goitiaren musika eta hitzekin. Lehenengo laneko musika elektronikoleunaren aldean, doinu bortitzagoak eta dibertigarriagoak ondu ditu disko honetarako. Ekoizpena Beñatek berak hartu du bere gain, **Víctor Sánchez**ekin batera, Elkarrek Adunan duen estudio berrian. Bekak zehazten duen bezala, Benizzeren lan berri hau EHZ Festibalean aurkeztuko da, Arberatze-Zilhekoan (Nafarroa Beherean), ekainaren 28ko asteburuan.

## BENIZZE PROIEKTUA

Hamabost urte zituela, Beñat Goitia gasteiztarrak Expolio taldean jo zituen Kalifornia kutsuko skate-punk doinuak. Gero, berriz, musika eta literatura uztartu zituen *Isturitzetik Etiopian barrena* ikuskizunean. Montauk taldearekin bi disko ere grabatu zituen.

Bi disko horietako azkenean aldaketa sumatzen bazen ere, pandemia eta ordenagailuaren aurreko orduak izan ziren norabide berria erabat markatu zutenak. Gitarraren ordez samplerrak hartu eta 2022an Benizze sortu zuen Beñatek.

*Bazatoz* Benizzeren aurkezpena izan zen. Pieza hura, benetan inpaktu handikoa, **Kauldi Iriondo**k zuzendutako bideo batean bilduta etorri zen, eta honako asmo-adierazpen honekin: "Euskal tradizioa eta euskal kultura berreskuratzeko mezua helarazi nahi dut, geure burua berrasmatzeko eta historia berrirakurtzeko mezua ahaztu gabe. Euskal Herrian musika, gizartea eta politika zaharberritzeko premia begi-bistakoa dela uste dut, eta Benizzek premia hori islatu nahi du".

Lehenengo lanean, zazpi kanta bildu zituen. Horietako batean, *Mamuak eta izozkiak*en, **Ruper Ordorika**k berak kolaboratu zuen.
Hortik aurrera, lan eta soinu-bilaketa gehiago. Goxotasuna eta murmurioa alde batera uzteko saiakera kontzientea. Latineoa, oldarkortasuna, oihuak eta edukiak… Eduki asko.



# JEANNE ASHBÉ

**Jeanne Ashbé (Brusela, 1955), txikienentzako liburugile eta ilustratzaile arrakastatsua da, mundu mailan ezaguna eta saritua. Fintasuna, enpatia, neurritasuna eta sugerentzia dira bere lanen ezaugarri azpimarragarri batzuk. Bizitzatik liburura eta liburutik bizitzarako ibilbideak proposatzen dizkio haur zein helduari, bide horretan, emozio, bizipen partekatu eta hizkuntza truke aberasgarriei azaleratzeko aukerak emanez.**


© EMMA BOURGUIGNON

Ashbéren bizitza betidanik marrazkiz, kolorez eta umez inguratuta egon da, bai bere haurtzaroan, bai gerora ere. Ortofonia eta psikologia ikasketak eginda, Quebeceko haurrentzako ospitale batean hizkuntza terapeuta gisa egin zuen lan, harik eta, Belgikara itzulita, liburuak ilustratzeari eta liburu proiektu propioak garatzeari ekin zion arte.

Bere lanaren bi alderdi nagusienetarikoak irudimenaren alderdi poetikoa eta txikienen eguneroko bizitza dira. Egunerokoaz hitz egiteko *Fermin eta Krixpin* sortu zuen, haurtxoen eguneroko bizitzako egoeretatik abiatuta, elkarrekin hitz egiteko pentsatutako bilduma, eta irakurleek bereziki maite dutena.

**Zer zeneukan gogoan bi pertsonaia hauek sortzerakoan, eta berriki, bilduma hau osatzera etorri diren istorio berri bakoitzean?**

Bildumako titulu bakoitza haurraren eguneroko esplorazio-ariketa bizi eta anitz horietako bat gertuagotik erakusteko modu bat da. Azkenean, haurraren "munduan egoteko modua" ezaugarritzen baitu esplorazio-ariketa etengabe horrek.

Haur txikiek beren eta objektuen arteko elkarrekintza bera errepikatzen dute, zientzialarien gisa, probak behin eta berriro eginez, munduak nola funtzionatzen duen ulertzen saiatzeko. Eta hor hasten dira beren haur-lanean! Nire marrazkietan txikienek egiten duten lan itzelagatik sentitzen dudan enpatia jasotzen saiatzen naiz.

***Fermin eta Krixpin* liburu ilustratu txikien sortak heldu eta haurren elkarlan eta irakurketa partekaturako aukera sortzen du, "elkarrekin hitz egiteko irudiak" direla diozu.**

Bai, horrela deitzen diet bai. Psikolinguistikako adituek azpimarratzen dute haurrarekiko interaktibitateak hizkuntzaren garapenerako duen ezinbesteko eta funtsezko garrantzia.

Horregatik, arreta handia jartzen diet liburuaren, umearen eta helduaren artean proposatzen ditudan interakzioei. Testurik gabeko liburu ilustratu txikiak egiten ditut, zeinetan nire lan guztia haurrari ezagun egingo zaizkion eta berak bere hatzez seinalatuko dituen irudiak sortzean datzan; berari interesatzen zaiona erakusteko, ezagunak zaizkion hizkuntzaren edo hizkuntzen hitzak ahoskatzera animatzen laguntzeko, eta horrela, hizkuntzaren agerpena eta garapena sustatzeko. Haur txiki baten bizitza talde-lana da. Eta irakurketa, taldelana ere bai!












**FERMIN ETA KRIXPIN BILDUMA**
Jeanne Ashbé
TTARTTALO

**MIREN ARREGI**
Kazetaria






## SARI BANAKETA

**2024ko maiatzaren 18an egin genuen 16. elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia, Donostiako Alde Zaharreko elkar liburu-dendan. Ezin bestela izan, han agertu ziren edizio honetako saritu gehienak, baita beraien senitartekoak ere. Batzuk eta besteak pozarren batu ziren ekitaldira, sariak jasotzeko gogotsu.**

Urtero parte hartzaile kopurua altua bada, aurtengoa izugarria izan da, aurreko urteko zenbakiak nabarmen hobetuta. Izan ere, 9.000tik gora lagunek hartu dute parte: 4.300 ipuin jaso ditugu, 5.100 ilustrazio eta 940 komiki, gutxi gora behera. Baina ez dira zenbakiak bakarrik: aurten ere jasotako lanen maila oso altua izan da.








Saria jasotzen lehenak, gaztetxoenak izan ziren, alegia, **Jon Ander Urkiaga**k idatzitako *Azeri ase ezina* ipuina:

| ILUSTRAZIOA (A MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Ane Bosch** Lauro Ikastola (Loiu) |
| 2. saria | **Ibai Dominguez** Lauaxeta Ikastola (Zornotza) |

| ILUSTRAZIOA (B MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Maialen Allika** Eleizalde Ikastola (Bermeo) |
| 2. saria | **Laia Zubillaga** Erleta Ikastetxea (Leitza) |

| ILUSTRAZIOA (C MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Erik Garcia** Garcés de los Fayos Ikastola (Tafalla) |
| 2. saria | **Ager Calvo** Lauro Ikastola (Loiu) |



Ondoren, **Raquel Samitier**rek egindako ilustrazioarekin ipuin bat osatutakoek jaso zuten saria:



| IPUINA (D MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Aiora Etxezarreta** Langile Ikastola (Hernani) |
| 2. saria | **Manex Bikuña** Joxemiel Barandiaran Eskola (Ataun) |

| IPUINA (E MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Harriet Mitxelena** Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) |
| 2. saria | **Mireia Sagarra** Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) |

Kategorietako sariekin amaitzeko, **komiki**etako irabazleek sariak jaso zituzten:

| KOMIKIA (F MAILA) | |
|---|---|
| 1. saria | **Irati Gallastegi** Elorrioko Txintxirri Ikastola (Elorrio) |
| 2. saria | **Izaro Salazar** Zubi Zaharra Ikastola (Balmaseda) |





Azkenik, urtero bezala lehiaketa honetan kolaboratu duten **Laboral Kutxa** eta **Irrien Lagunak**-ek emandako sariak banatu genituen. Hauek zozketa bidez aukeratzen ditugu, parte-hartzea eskertzeko asmoz:

**IRRIEN LAGUNAK**

Harpidetza

**Mikel Gonzalez** Lezo Herri Eskola (Lezo)
**Arhane Zabaleta** Erleta ikastetxea (Leitza)
**Malen Egurbide** Ibaiondo Ikastetxea (Gasteiz)

Sari sorpresa

**Jon Mendikute** Azkue ikastola (Lekeitio)



**LABORAL KUTXA**

**Aiara Antoñana** Toki Eder Ikastola (Gasteiz)
**Ane Arratibel** Urretxu-Zumarraga Ikastola (Urretxu-Zumarraga)
Aldaialde eskola (Gasteiz)






Sortu zeure artelanak 25 artista inspiraziotzat hartuta

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

+4



**ZIZAREREN MUNDUA. URTAROAK**
Esther van den Berg
TTARTTALO

Zizare lan eta lan aritzen da urte osoan. Udaberrian, loreen haziak ereiten ditu; udan, animalien kumeak ikustera joaten da; udazkenean, hostoak biltzen ditu eskuarearekin, eta neguan, bero-bero janzten da.



**TRAKTORETXO GAIXO DAGO**
Natalie Quintart
TTARTTALO

Soroan lanean ari dela, bat-batean, Traktoretxo oso nekatuta sentitu da. Kea dario kapotaren azpitik. Lagunek azkar-azkar eraman dute baserrira. Traktoretxo gaixo dago eta egun batzuk eman beharko ditu estalpean. Baina ez du nahi!

+6



**ELBIRA ZIPITRIA ANDEREÑOA**
Antton Kazabon
DENONARTEAN

Elbira Zipitriak irakasle ikasketak egin, eta 22 urterekin lanean hasi zen, Koruko Andre Mariaren ikastetxean. Berrehun bat neska-mutil zebiltzan bertan eta denak euskaraz eskolatzen zituzten.



**HEMEN ETA ORAIN**
Laura Brand
TXALAPARTA

Laura Brand idazleak eta Freya Hartas ilustratzaileak hemen eta orain gozatzera gonbidatzen gaituzte liburu arrakastatsu honetan: une batez geratu, naturari begiratu, eta liluratu gaitezen gauzarik txikienekin.



**BAT ETA ZAZPI**
Gianni Rodari
PAMIELA/ KALANDRAKA

Haurtzaroari, tolerantziari eta dibertsitateari buruzko kontakizun beharrezkoa, indarkeriaren eta gerraren kontrako antidoto eta esperantza-iturri.



**ESQUELETOSAURIO 1 EL MISTERIO DEL DRAGÓN**
AAVV
MONTENA

¿Qué es eso que ve Rexi, el tiranosaurio rex? ¡Algo brilla en el fondo del río! Tiene que descubrir qué es. Pero, para resolver el misterio, tendrán que juntarse todos los esqueletosaurios y viajar a la montaña Bumbum…

+6



**KATTA 22. ARTEZALEAK**
Miren Agur Meabe
ELKAR

Kattak ezin izan zuen siesta egin marigorringo batek laguntza eskatu ziolako: Winston barraskiloak arazo bat zeukan, arazo koloretsu bat.



**OGI BANATZAILEA**
Peter Svetina
ALBERDANIA

Peter Svetinaren testu bikainak Jan eta Mariaren hazkunde eta garapenaren istorioa kontatzen digu, Jokin Mitxelena ilustratzailearen irudi apartekin.

+8



**AMESGAIZTO ETA AMETSEDER PIJAMA-JAI IZUGARRIA**
Laura Boiro
MEZULARI

Nix Amesgaiztok ezin du aditzen duena sinetsi: Sen Ametseder ez da inoiz benetako pijama-jai batean izan! Gauzak horrela, bere lagunik onenaren omenez jai izugarri dibertigarria antolatzea erabaki du.



**OLYMPIA 7. UDA ALFERKERIA GOZOAN**
Almudena Cid
ALBERDANIA

Erroman txapelketa jokatu ondoren, Olympia bere etxera itzuli da uda pasatzera. Gasteizen ikaragarri dibertitu da bere betiko lagunekin: autotxokeetan ibili, igerilekura joan eta, gainera, patinaje artistikoa deskubritu du...



+8



### INCENDIOS
Breena Bard
MAEVA YOUNG

Juliana adora su vida en la zona rural de Oregón. Pero un incendio forestal destruye la casa de su familia. Entonces deben trasladarse a Portland, donde Juliana espera dejar todo atrás.



### ANNA KADABRA 8 SORGINKERIA-JAIALDIA
Pedro Mañas
TRAVEL BUG

Anna eta beste aprendizak pozez txoratzen daude. Hurrengo sorginkeria-jaialdiko gonbidatzaileak izatea dagokie! Asteburua jauregi sorginduan emango dute, mago pila bat ezagutuko dituzte...



### EZ DAKIT ZERGATIK
Antton Kazabon
DENONARTEAN

Gure etxeko atearen aurrean igarotzen ditugu unerik goxoenak eta ederrenak. Hantxe eserita egiten ditugu azkenaldian oporretako gure bidaiak ere, bertatik mugitu ere egin gabe.




### TU MARAVILLOSO CEREBRO
Philip Bunting
IDEAKA

El cerebro humano es de lo más extraordinario del universo conocido, pero todavía tenemos muchísimo por descubrir sobre él. ¿De dónde vienen los pensamientos? ¿Por qué soñamos?

+10



### SARA LI. HIRI GALDUA
Julio Santos
XARPA BOOKS

Kaixo, Sara-Li naiz eta botere magikoak ditut. Gure azken abenturan gertatutako guztia barneratzen ari ginela, jauregiaren azpian aurkitu genuen koba bere sekretuak agerian uzten hasi zen, eta aztiek haiekin batera joatera gonbidatu gintuzten.



### DEL MONO AL HOMO SAPIENS
Bengt-Erik Engholm
HARPERKIDS

Hemos recorrido un largo camino desde que nos subíamos a los árboles y caminábamos a cuatro patas hasta que construimos el primer robot que trabajara para nosotros. ¿Cómo ha llegado nuestra sociedad a ser como es hoy?

+12



### BI LETTER JASO NITUEN OSO DENBORA GUTXIAN
Bernardo Atxaga
EREIN

Bi *letter* jaso nituen oso denbora gutxian, hamar eguneko tartearekin edo. Biak zuzen-zuzen etorri ziren nik Boiseko *city* amerikano honetan daukadan etxeraino, eta nire iloba Jimmyk ekarri zizkidan eskura.



### TXOKOLAT
Gaizka Arostegi
ELKAR

Baionako juduen aurkako nazien jazarpenaren garaian abiatzen da istorio hau, 1944 urtean. Sarak, hamalau urteko judu baionarrak, ihes egin beharko du Hirugarren Reich-eko soldaduek gurasoak preso eraman ondoren.

+12



### ITZALEN DAMA ETA PATXI BAKALLU. HARRIZKO ERREMENTARIAK
Urtzi Leonet
ELKAR

Portutxotarrek iparraldeko itsasgizonen eraso bati aurre egin behar izan diote, baina ez da eraso arrunta: ipartarrek Jaun Zuria bera dute buru, eta honek eginahalak egingo ditu Jentilen Oihanean gaitz iluna hedatzeko.




### ¡HOLA, SEXO! TODO LO QUE NECESITAS SABER SOBRE SEXUALIDAD
Elena Crespi i Asensio
B DE BLOK

En la adolescencia, el cuerpo sufre una gran transformación, y en ocasiones eso puede generar inseguridades, confusión o que no te sientas bien con tu cuerpo. Por todo eso, tener curiosidad sobre tu cuerpo es de lo más normal y sano.




### CRIATURAS IMPOSIBLES
Katherine Rundell
DESTINO

Esta es una historia que transcurre entre dos mundos. El mundo real, donde nada extraordinario parece suceder. Y el Archipiélago, un territorio donde la magia pervive y los humanos conviven con criaturas mitológicas como dragones o sirenas.




### CORAZÓN DE PIEDRA. TRILOGÍA SANGRE DE PLATA
Lucía G. Sobrado
BEDICIONES

Cuando la poderosa emperatriz de Ayrin Wenlion le arrancó el corazón al Rey de los Elfos Oscuros, el órgano se transformó en piedra negra, fría y dura. Así se desencadenó la guerra más violenta y descarnada jamás vivida.



# NOBEDADEAK
## *liburuak*



**KAIOEN ORDUA**
Ibon Martín
ELKAR

Irailak 8, alardearen egun handia Hondarribian. Jaizkibel konpainian desfilatzen doan emakume bati labankada sartu diote. Horren atzetik krimen matxista gehiago gertatuko dira, eta Ane Cesterori egokituko zaio kasuaren ikerketa.



**NEKROPOLIA**
Boris Pahor
ALBERDANIA

*Nekropolia* liburu autobiografiko bizi eta beldurgarria da. Eta Pahorrek adierazten diguna nazien kontzentrazio-esparruen ankerkeriaren testigantza ez ezik, gizabanakoaren erresistentzia eta eskuzabaltasunari buruzko dokumentu zirraragarri bat da.



**FRANCESCO PASQUALEREN BOSGARREN ARIMA**
Unai Iturriaga
SUSA

XIX. mendean, Italiako kostaldetik euskal kostaldera, Bermeora, emigratu zuen Francesco Gervasi Pasqualeren istorioa dakar Unai Iturriagaren nobela berriak.



**XOMORROAK**
Julià Guillamon
TXALAPARTA

Ipuin-bilduma, eleberria eta saiakera literarioa nahasten diren eremu lausoan, liburu bakan honek orainaren eta iraganaren arteko harremanak kontatzen eta esperantzaren eta memoriaren arteko hariak josten ditu.



**GEREZI-DENBORA**
Montserrat Roig
CONSONNI

Natàlia Miralpeix 1974ko Bartzelonara itzuli da, atzerrian hamabi urtez bizi eta gero. Astebetean, Natàliak aurrez aurre izanen ditu bere familiaren iragana eta oraina, borborka ari den hiri batean.



**MAITASUNA ETA DIRUA, SEXUA ETA HERIOTZA**
McKenzie Wark
KATAKRAK

Ibilbide arrakastatsu baten eta hogei urteko ezkonaldiaren ostean, bi seme-alabekin, McKenzie Wark-ek bizitza erdialdeko krisi sakon bat izan zuen: emakume trans gisa atera zen armairutik.



**EZ NAIZ ONDO AKORDATZEN**
Karlos Linazasoro
ELKAR

Santu baten bizitza kontatzen duen idazkiari deitzen zaio hagiografia, eta honako hau duzue, egileak berak kontatuta, bere santu-bizitzaren azalpen xehe eta guztizkoa, menosten hasitako oroimenak uzten dion neurrian betiere.



**GALBAHEA**
Gotzon Barandiaran
SUSA

Hitzen zentzua eta bizitzaren zantzua berreskuratzeko, letrazko galbahe bat eraiki du Gotzon Barandiaranek bere hirugarren poema liburuan.



**PRESBIZIAK LAGUNDUKO OMEN DIGU**
Edu Zelaieta Antia
PAMIELA

Ezagutza kokatuaren aitortzatik abiatzen da poema-bilduma, gorputz higatuaren aitortzatik: presbiziatik eta presbiziaz dihardute lehen ale poetikoek.



**ARKEOLOGIA HARAGITAN**
Beñat Arruti
BALEA ZURIA

*Arkeologia haragitan* poema-liburuak jaso du aurtengo DK Poesia Saria. Aipuz eta irakurketaz ondo hornitua dator, eta trebeki uztartzen du gogoeta eta hizkuntzaren distira.





**ODESAN DANTZAN**
Ilya Kaminsky
BALEA ZURIA

Kaminskyren mundu poetikoa kultur aipuz eta familia-oroitzapen ugariz egina dago. Bere hildakoak gure hildako bihurtzen dira, eta orainaldira datoz etengabe ate joka.




**ITZALEN TEKTONIKA**
Itxaro Borda
SUSA

Hamalau urterekin idaztea hil ala biziko jarduntzat deskubritzen duen norbaiten aitortzak abiatzen du *Itzalen tektonika*. Garai izugarri baten ikarak, poetaren paseoak eta desirak adinik ez duela ospatzen duten lerroak.




**URRATS GALDUEN HOTSA**
Luis Garde
PAMIELA

*Urrats galduen hotsa* dakar udaberri honetan Luis Gardek, zazpi urte igaro direlarik bere azken poesia liburua argitaratu zuenetik. Hurbiltasun eta pauso ziurrez idatzi ditu poemok Gardek, ohikoa duen fineziaz.




**HERRIAK DU GEHIEN AGINTZEN**
Raquel Varela / Robson Vilalba
TXALAPARTA

Raquel Varela historialariaren eta Robson Vilalba ilustratzailearen eskutik, denboran atzera bidaiatuko, dugu apirilaren 25eko iraultzaren aurreko eta ondoko urteetara.




**TUPUST! GU**
Tupust! Kolektiboa
TUPUST!

*Tupust!* komiki antologia feminista honen atzean, izen bereko kolektiboa dago. Kolektiboaren helburu nagusien artean komikia eta feminismoa uztartzea dago.



**HERRIAREN HEZKUNTZA ETA DEMOKRAZIA**
Nadezhda Krupskaia
KATAKRAK

1917ko iraultzak gizateriaren historia aldatu zuen. Aldaketa horren ardatzetako bat Sobietar Batasunak eraiki zuen hezkuntza sistema berria izan zen.




**GUREAN ZER BERRI? ZAHARRAK BERRI 8**
Batzuk
LABAYRU

*Gurean zer berri? Zaharrak barri* bildumako zortzigarren alea argitaratu berri du Labayru institutuak. Etnografia Atalak izeneko blogean astero zabaltzen diren artikuluen artean egindako aukeraketa da. Guztira hamabi artikulu datoz hiru hizkuntzatan.




**IMMIGRAZIOA ETA ABERTZALETASUNA**
Pako Sudupe
EHU/UEU

Lan honetan hiru alditan, hala nola 1) 1876tik aurrera, 2) frankismoan eta 3) azken mende bueltan, Hego Euskal Herria etorritako migratzaileen kopuru handiak indar abertzaleen aldetik zer nolako diskurtsoak sortu dituen azaltzen da.




**ZORTZI PASTORAL BERRI. I. TOMOA.**
Junes Casenave-Harigile
EUSKALTZAINDIA

Junes Casenave-Harigile (1924-2018) apezak pastoral asko idatzi zituen. Horietatik hamaika taularatu ziren; aldiz, zortzi aurkeztu gabe geratu ziren. Azken horietatik lau lehen tomo honetan datoz: Agosti Etxekopar, Atarratze, Barkoxe eta Dabid.




**JAKIN 261. BERTSOAREN AHOTSA: GORPUTZA, DISKURTSOA, GENEROA**
Batzuk
JAKIN

Gorputzak, diskurtsoak eta generoak bertsolaritzan duten lekua aztertu dute Miren Artetxe Sarasola, Irati Majuelo Itoiz, Oihana Arana eta Ainhoa Urien Telletxek.




**UZTAPIDE ETA XALBADOR**
Pako Aristi
EREIN

Manuel Olaizola, *Uztapide*, Zestoan jaio zen. Fernando Aire, *Xalbador*, Urepelen. Bien tartean muga bat egon arren, eta bi euskalkitan kantatu arren, elkar osatu zuten hogeita hamar urtez iraun zuen adiskidantzaren bitartez.




**HARITZAREN ADARRAK**
Joseba Aurkenerena
DAKIT

Oihan beltzean badira zuhaitz, zuhaixka eta landare ainitz, eta bakoitzak, askotan besteekin borrokatuz, bere tokitxoa egina du. Zuhaitzen artean badira lizarrak, haritzak, pagoak, urkiak, makalak, astigarrak, hurritzak, intxaurrondoak...




# NOVEDADES

## *libros*




### LA HORA DEL LOBO
Toni Hill
GRIJALBO/ DARGAUD

Tras el éxito de *El último verdugo*, continúa la trilogía que todos recomiendan. La noche en que Daniel desapareció solo encontraron el cuerpo de su madre estrangulada en la casa donde vivían en un pueblo de los Pirineos.




### SI TE GUSTA LA OSCURIDAD
Stephen King
PLAZA&JANES

El nuevo lanzamiento del rey del terror es una colección de doce relatos que lo afianza, una vez más, como uno de los mejores narradores de nuestro tiempo. Primera edición especial con sobrecubierta reversible.




### EL AÑO DE LA LANGOSTA
Terry Hayes
PLANETA

Un *thriller* geopolítico impecable, adictivo y altamente cinematográfico que transporta al lector de Washington a Irán pasando por Rusia o Nueva York en un increíble viaje alrededor del mundo.




### LA NOCHE QUE SONARON LAS CAMPANAS
Carmen Macedo
N DE NOVELA

El cadáver de un concejal aparece desmembrado y enterrado hasta las rodillas bajo las ramas de un tejo milenario. ¿Forma parte de un morboso ritual, de una venganza política o alguien ha copiado un terrible asesinato del pasado?




### LAS DELICIOSAS HISTORIAS DE LA TABERNA KAMOGAWA
Hisashi Kashiwai
SALAMANDRA

Una nueva entrega del fenómeno del *cosy crime* japonés que ha seducido a miles de lectores. La pareja formada por el padre y la hija Kamogawa ha empezado a anunciar sus servicios como "detectives de la comida".




### ESNOB
Elísabet Benavent
SUMA DE LETRAS

Eres un tiburón de las finanzas, perteneces a una buena familia y siempre lo has tenido todo, por no hablar de que no hay chica que se te resista. Y cuando estás a punto de rozar la cumbre del éxito, lo pierdes todo... por tu culpa.




### PECADOS 1. REY DE LA IRA (EDICIÓN ESPECIAL)
Ana Huang
CROSSBOOKS

Déjate tentar por la edición especial y limitada de la nueva serie Pecados de Ana Huang. Ella es la esposa que él nunca quiso… y la debilidad que no vio venir. Implacable. Meticuloso. Arrogante.




### EL FUEGO PURIFICADOR
Donna Leon
SEIX BARRAL

La Piazza San Marco aparece cubierta de cristales: dos bandas juveniles se han enfrentado violentamente en la oscuridad. Mientras la *commissario* Griffoni confía en su intuición, Brunetti recurre a sus contactos.




### A PUERTA CERRADA
J.D. Barker
DESTINO

La nueva novela de J. D. Barker, maestro del *thriller* psicológico. Abby y Brendan Hollander no son felices. Su matrimonio se encuentra en punto muerto. Él trabaja investigando delitos financieros, ella es escritora.




### EL HUÉSPED MISTERIOSO
Nita Prose
DUOMO

Molly Gray no es una camarera corriente. Gracias a su talento, ha ascendido en el elegante hotel Regency Grand a jefa de camareras. Pero justo cuando su vida alcanza la cima de la perfección, todo da un vuelco.






**CUIDAR DE ELLA**
Jean-Baptiste Andrea
ADN

Premio Goncourt 2023. Mimo trabaja como aprendiz con un escultor de poca monta, pero tiene talento. Viola Orsini es una heredera, pero tiene demasiada ambición para resignarse al papel de esposa asignado desde la cuna.




**FATAL, GRACIAS**
Paula Púa
PLAZA&JANES

Paula Púa, cómica y guionista, nos regala la oportunidad de reírnos de las historias de una vida tan desastrosa como la tuya. Esta es una comedia sobre la aceptación de la propia mediocridad y la autoexigencia.




**MUERTE EN EL CAIRO**
Erika Ruth Neubauer
MAEVA

Asesinatos, romance y aventuras en Egipto en la década de 1920. El lujoso hotel Mena House en El Cairo se convierte en el escenario de un asesinato en un *cozy crime* que arrancará más de una sonrisa a los lectores.




**LA MENTIRA ES LA QUE MANDA**
Patxi Irurzun
PAMIELA

Tras el éxito de T*ratado de (h)ortografía* y *Chucherías Herodes*, la tercera entrega de las peripecias del cantante de Los Tampones aborda temas como la indefensión del ciudadano ante los tentáculos del poder o las relaciones familiares.




**SÉ MÍA**
Richard Ford
ANAGRAMA

Regresa un viejo conocido, con aires de despedida definitiva: Frank Bascombe protagoniza su quinto libro de la mano de Richard Ford.



**EL MUNDO SILENCIOSO DE NICHOLAS QUINN**
Colin Dexter
SIRUELA

Un nuevo caso para Endeavour Morse, el mítico inspector de la policía de Oxford. El Oxford Foreign Examinations Syndicate se ocupa de los exámenes escolares en el golfo Pérsico y otros enclaves conectados con Gran Bretaña.




**ESTACIÓN DAMASCO**
David McCloskey
SALAMANDRA

Siria arde en llamas. Asediado por las protestas populares en las calles, el sanguinario dictador Bachar el Asad responde con una violencia cada vez mayor, que incluye, se sospecha, el uso de armas químicas.




**SURFERAS**
Paola Hirou
NÓRDICA

Paola Hirou retrata a Isabel Letham, Mary Ann Hawkins, Linda Benson, Joyce Hoffman, Rell Sunn, Lisa Andersen, Rhonda Harper, Maryam El Gardoum y Justine Dupont, nueve mujeres que han marcado la historia del surf.




**NO ES AMOR**
Ali Hazelwood
CONTRALUZ

Una aventura secreta y prohibida demuestra que en el amor y en la ciencia todo vale. Una novela de Ali Hazelwood, autora bestseller del *New York Times*.




**PALESTINA. ANATOMÍA DE UN GENOCIDIO**
AAVV
TXALAPARTA

Este libro reúne las voces de destacadas figuras académicas e intelectuales de todo el mundo, de origen judío y palestino. Estos pensadores examinan los horrores que han sacudido Gaza desde octubre de 2023.




**LOS FUGADOS DEL FUERTE DE EZKABA**
Fermin Ezkieta
PAMIELA

La fuga del fuerte ofrece la fascinación de los acontecimientos épicos, y ocupó las portadas de la prensa internacional antes de caer en un interesado ocultamiento. Suscitó más reseñas en el *New York Times* que en la prensa local.




**COMER SIN HAMBRE**
Judson Brewer
PAIDÓS

Con un estilo accesible, a partir de los estudios en neurociencia más pioneros y de décadas de estudio y práctica psiquiátrica, *Comer sin hambre* es un manual con el que estableceremos hábitos saludables.



# NOBEDADEAK
## musika



**DE ANDAR Y DESANDAR**
Idoia
ALTAFONTE

Idoia Asurmendi aramaioarraren bigarren diskoak euskaraz zein gazteleraz idatzitako zortzi abesti eskaintzen ditu. Maitasunaz, hazkunde pertsonalaz eta bide horretan sortutako oroitzapenez hitz egiten dute.



**UN LUGAR PERFECTO**
Depedro
GRAN SOL

Quizá sea esta la versión más intimista y austera de la travesía internacionalista que Jairo Zavala emprendió hace más de tres lustros como Depedro. Todo suena más conciso, también singularmente reflexivo.




**CONFRONTACIÓN**
Soziedad Alkoholika
MALDITO RECORDS

El décimo álbum de estudio de Soziedad Alkoholika es la prueba de que el grupo ya no necesita demostrar nada, ni rendir cuentas a nadie. Esta condición de mantenerse libres y ser fieles a sí mismos les permite trabajar con una precisión quirúrgica.



**HASIERA BAT**
Gorka Urbizu
ALTAFONTE

Gorka Urbizuk bere izenez sinatzen duen lehen diskoak hamar kantu dakartza. Hamar aukera. Hamar erabaki. Izan zitezkeen beste batzuk, baina hauexek dira: *Maitasun bat*, *Teoria bat*, *Tren bat*, *Toki bat*, *Janela bat*, *Kolore bat*, *Lilura bat*, *Etxe bat*, *Sute bat*, *Besterik ez*.




**EN EL BRILLO DE LOS OJITOS**
Doctor Deseo
BAGA BIGA

Este mini álbum de seis canciones, cada una de una madre, constituye un disco existencial, fruto de cierta sensación de pérdida. La canción que da título al disco parte de un poema de José Hierro, prosigue con unos rasgueos western y luego deriva en una mezcla de trap, rumba y rock´n´roll.



**BASATI (CD/LP)**
Benizze
ELKAR

Beñat Goitia arabarrak euskal kantagintza zaharberritzeko premia aldarrikatzen du eta musika elektronikoan ikusten du horretarako aukera. Disko honetan hamaika doinu basati eta dibertigarri bildu ditu.




**EUSKAL HERRIA JAMAIKA CLASH (LP)**
Fermin Muguruza
ELKAR

Biniloan dator berriro Fermin Muguruzaren gorengo lana, *Euskal Herria Jamaika Clash*. Diskoan parte hartu zuten, besteak beste, U-Royk, I Threes hirukoak, Lucianok eta Fermin Muguruzaren bidean garrantzi handia izan duen Toots Hibbert-ek.



**ESTOPÍA**
Estopa
SONY-BMG ARIOLA

Invitación a viajar al universo de Estopa, que celebra sus 25 años de carrera con un álbum que recoge la iconografía de todo su imaginario, creado durante todos estos años y que bien merece un reconocimiento detallado.

## DVD-AK




**UN AMOR**
Isabel Coixet
KARMA FILMS

Isabel Coixet ha llevado a la gran pantalla la novela homónima de Sara Mesa. Esta protagonizada por Laia Costa y Hovik Keuchkerian.



**DUNE 2**
Denis Villeneuve
WARNER BROS

*Dune 2* explora el viaje mítico de Paul Atreides mientras se une a Chani y los Fremen en una guerra de venganza contra los conspiradores que destruyeron su familia.






+4




## EL REY DE LOS DADOS JUNIOR

HABA

Dado eta mahai jolas honetan helburua gaztelua eraikitzea da gainerako jolaskideek baino lehenago.

+5




## COSTU'MONSTERS

ÁTOMO GAMES

Costu'Monsters es un divertido y dinámico juego estilo party game en el que os convertiréis en estilistas de unos peculiares personajes. Disfraza a tus monstruos.

+6




## PRESTO

FALOMIR

Date prisa en hacer Pop a las burbujas. Completa los retos de las tarjetas Presto y coge a la Señora Burbuja para hacerte con la victoria.

+6




## PYRAMID MONKEY

DJECO

¿Qué banda de monos será la primera en construir su pirámide? Para ello, tendréis que arriesgar y sacar a los acróbatas adecuados de la bolsa.

+7




## TRIO

ASMODEE

Nork asmatuko du kartetan ezkutatutako zenbakia? Jolas erraz eta bizi honek harrapatuko zaitu!

+8




## GRAFFITI RUSH

MERCURIO

¡Prepárate para llenar de color las calles de la ciudad! Sólo tienes un minuto para colocar todas tus losetas y formar tu mural grafitero. . .

+10




## HARMONIES

LIBELLUD

Irudimena lantzeko mahai-jolas kitzikagarria. Mundu oso baina txiki bat osatu behar duzu non animaliak eta natura armonia ederrean bizi diren.




UDA HONETAN,
SARTU MOTXILAN
KiLimaK
JOLASTUZ IKASTEKO
OPORRETAKO KOADERNOA!
KiLimaK 2 KOADERNO JOSTAGARRIA 7-8 URTE
KiLimaK 1 KOADERNO JOSTAGARRIA 6-7 URTE
istorio-misterioak argitzeko
irakurketa eta idazketa
hizkuntza-jolasak
matematika-jolasak
ikerketak eta eskulanak
KiLi, KiLi, KiLi... KiLimaK!
ikaselkar
Hezkuntza dugu pasio